

Bizkaiko Erresidentziak Borrokan! Langile Borrokatik Ahalduntze Feministara

Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra

Egilea: Nahia Fernández Vicario

Tutorea: Yolanda Jubeto Ruiz



2018ko Ekaina

AURKIBIDEA

Laburpena	3
Taulen aurkibidea	4
0. Sarrera	5
1. Langile borrokatik ahalduntze feministara: testuinguruaren azterketa	11
1.1. Industrializazio garaia: “Breadwinner” ereduaren zimenduak eraikiz	11
1.2. Egungo emakumeen egoera lan merkatuan	19
1.3. Egungo emakumeen egoera sindikatuetan.....	27
1.4. Ahalduntze feminista	34
2. Bizkaiko Erresidentziak Borrokan: Grebalarien ahotsak	40
2.1. Metodologia	40
2.2. Grebalarien lekukotza	42
3. Ondorioak	61
4. Bibliografia	67
5. Eranskinak	70

LABURPENA

Ikerketa honen bidez, Bizkaiko Erresidentzietako Borroka izango dugu aztergai, bi urte eta 378 greba egun iraun dituen gatazka feminizatua, alegia. Erresidentzietako langileek aurrera eramandako greban jarriko da fokua, klase borrokatik abiatuta ahalduz feministak prozesuak eman diren, eta hala izan balitz nola suertatu diren aztertzeko helburuarekin. Xede honetarako, lehenik eta behin zerbitzuotako langileen eta oro har sektorearen baldintzak testuinguratuko dira. Sektore feminizatua denez, emakumeen egoera lan merkatuan zein sindikalgintzan aztertuko dira, ondoren ahalduz feministaren inguruko hausnarketak plazaratuko direlarik, galdera nagusi hau darabilgularik: posible al da, prekarizatua eta feminizatua dagoen sektore baten baitan, eta kutsu androzentriko nabarmena duen sindikalgintza eredu baten baitan ahalduz feministak prozesuak aurrera eramatea? Galdera honi era egokienean erantzuna ematen ahaleginduko gara, azkenik, Bizkaiko Erresidentzietako Gatazkan parte hartu zuten grebalarien ahots eta kontakizunen bidez.

GAKO-HITZAK: Sexuaren araberako lanaren banaketa, sektore feminizatuak, borroka feminizatuak, ahalduz feministak, sindikalgintza.

TAULEN AURKIBIDEA

Taula	Izena	Kokapena
1.Taula	Euskal AEko emakumezkoen enpleguaren pisu erlatiboa, jarduera-adarraren arabera (enplegu guztiaren %). 2012.	19. orrialdea.
2.Taula	Espainiar Estatuko lan erreformen kronologia, eduki nagusiak eta eraginak.	21. orrialdea.
3.Taula	Sindikatu nagusietako idazkaritza nagusiak eta batzorde eragileak sexuaren arabera. 2015-2016.	32. orrialdea
4.Taula	“Botere mailak”: terminologia euskaratua	III. Eranskina
5.Taula	Elkarrizketen kronologia eta hizlarien sailkapena	IV. Eranskina

0. SARRERA

Azken hamarkadetan, neoliberalismoaren hedatze bortitza ari gara bizitzen, eta haren eragina gure inguru hurbilenean ere jasaten ari gara. Neoliberalismoa, ordea, nazioarteko logika eta estrategia jakin bati erantzuten dion sistema politiko eta ekonomikoa da, zeinari 1989. urtean eman zitzaion izena. Modu honetan, 1989ko Washington-eko Kotsentsuan, “merkatu gehiago eta Estatu gutxiago” formula aldarrikatu eta geroago ezarri egin zen nazioartean, honako ezaugarriak zekartzalarik formula neoliberal honek: zerbitzu publikoen pribatizazio prozesua eta lan merkatuaren eta baldintzen flexibilizazioa, enpresak onuratzeko helburuarekin (Alcañiz eta Monteiro, 2016).

Lerro beretik jarraituz, jakina denez azken hamarkadetan Europar Batasuneko Estatu ezberdinetan lan erreforma eta “austeritate” neurri ezberdinak eraman dira aurrera, Estatuotako zerbitzu publikoen pribatizazio prozesu batean daudelarik egun ere bai. Honen adibide ditugu Espainiar estatuan trantsizioaz geroztik izan diren legealdietan gauzatu diren lan-erreforma ezberdinak, zeinak langileriaren eskubide galera ekarri duten, lan moldeen flexibilizazio nabarmenarekin batera. Horretaz gain, ongizate Estatuaren oinarritzko zutabeak izan diren zenbait zerbitzuren pribatizazio prozesuan murgildurik dago ere Estatu Espainiarra: osasun sistema, hezkuntza sistema edota gizarte zerbitzuak, besteak beste.

Joera hau 2007an Estatu Batuetan sortutako eta ondoren Europar Batasunera eta munduko beste hainbat lurraldetara zabalduetako krisi ekonomikoarekin indartu egin zen. Europar Batasuneko hegoaldeko edo mediterraneoko herrialdeak, Italia, Grezia, Portugal eta Espainia, hain zuzen ere, kaltetuenak izan dira zentzu honetan. Grezia eta Portugalen kasuan, erreskatatuak izan diren heinean, Troikak inposatutako neurri neoliberalak ezarri behar izan dituzte lurraldeotako gobernuek. Espainiar Estatuaren kasuan, erreskatea bankaren sektorearen gain soilik gauzatu zen arren, Troikak ezarritako austeritate neurriak aurrera eraman ziren modu berean (Mercedes Alcañiz eta Rosa Monteiro, 2016).

Espainiar Estatuko ongizate sistema erdua, gainontzeko lurralde mediterraneotan izan ohi den moduan, eredu familista da. Eredu familistak honako ezaugarriak ditu: sexuaren araberako lanaren banaketa nabarmena, gastu publiko urria, emakumeen parte-hartze

urria lan merkatuan eta Eliza Katolikoaren eragina (Esping-Andersen eta Pailer, 2010; Silva, 2002; Tobío 2015, hemendik aterata: Mercedes Alcañiz eta Rosa Monteiro, 2016). Ongizate Estatu eredu honek ez du gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna ahalbidetzen, aipaturiko ezaugarrien eraginez. Bada, azken urteetan Espainiar Estatuak ezarritako austeritate neurriek egoera hau larriago bilakatu dute. Zerbitzu publikoen merkantilizazioak, esaterako, bizitzarako ezinbestekoak diren zerbitzuak prekarizatzea edota publikoki eskaintzeari uztea dakar; besteak beste zaintzarekin zerikusia duten lanak. Jakina denez, estatuak utzitako hutsune hauek emakumeek betetzen dituzte oro har, lanaren sexuaren araberako banaketa dela eta. Zerbitzu hauek emakumeen eskuetara pasatzen dira, merkatutik at ordaindu gabeko lanaren bidez zein lan merkatuaren baitan baldintza geroz eta prekarioagoetan aurrera eramaten direlarik.

Prekarietatea, pertsona jakin batek bizitzeko behar dituen oinarritzko baliabideak izateko ziurgabetasuna sortzen duen baldintza material eta sinboliko sorta da (Precarias a la Deriva, 2004). Prekarietatea geroz eta hedatuago dago Europan zehar zein Estatu Espainiarrean, estrategia eta politikagintza neoliberalak prekarietatea areagotzea baitakar. Prekarietatearen fenomenoak, aitzitik, ez du modu berean eragiten lurralde bereko pertsonengan, baizik eta zaugarritasun gehien pairatzen duten kolektiboengan eragiten du bereziki: langile klasea, etorkinak, gazteak eta emakumeak, besteak beste (Tomeu Sales, 2016).

Prekarietatearen feminizazioak, aipaturiko fenomeno honi erantzuten dio, hain zuzen ere. Prekarietateak emakume aurpegia du: lan baldintza kaxkarragoak, enplegu malguagoak, ziurgabetasun handiagoa, lanaldi partzialak, erreprodukzio lana eta enplegua kontziliatu beharra edota soldata arrakala dira, beste askoren artean, emakumeen lan eta bizi baldintzak prekarizatzen dituzten egoerak.

Prekarietatearen feminizazioaren oinarrian, sexuaren araberako lanaren banaketan dago. Egun bizi dugun neoliberalismoaren olatuak, gainera, sexuaren araberako lanaren banaketa eta honek dakartzan ezberdintasun sozialak areagotu ditu. Izan ere, sexu segregazioaz gain, fenomeno honek ere lan ezberdinen arteko ierarkia bat sortzen du, “gizonezkoenak” diren lanak balioan jarriz, “emakumezkoen” lanarekin alderatuz. Modu honetan, lan merkatuaren baitan, sektore feminizatuak sarri prekarioenak izaten dira, lan-baldintzak okerragoak izaten baitituzte oro har (soldata, kontratu mota, lanaldia, eta abar) gizonezkoen baldintzekin alderatuz, nahiz eta azken hauen artean ere

prekarietatea geroz eta zabalagoa den. Emakumeek betetzen dituzten enpleguen ehuneko gehiengoak zerbitzuen sektorean pilatzen da, eta arlo feminizatuen hitzarmenak begiratzea besterik ez dago langileen baldintza kaxkarretaz jabetzeko.

Egoera honi sindikalgintzaren ikuspegia gehitu behar diogu. Erakunde sindikalen eta emakumeen arteko harremana historikoki harreman gatazkatsua izan da. Hasiera batetik gune maskulinizatuak izan dira sindikatuak, eta emakumeen presentzia urria izan da. Industrializazio garaia hasieran, sindikatu gehiegitan emakumeek parte-hartzeko debekua zuten, eta debekua ezarria ez zuten erakundeetan ere ierarkia androzentriko eta funtzioen banaketa sakonki sexista eman zen. Denborarekin egoera hoberruntz joan den arren, sindikatuak gune maskulinizatuak izaten jarraitzen dute egun ere, eta sindikalistaren irudi sinbolikoak industrializazio garaiko berberak izaten jarraitzen du: gizon zuria, heldua, heterosexuala, fabrika lan egiten duena eta familia-burua (*breadwinner* eredua). Sinbologia honek, langile klasearen gehiengo bat sindikalistaren irudiarekin identifikatua ez sentitzea dakar, gehiengo horren artean, emakumeak.

Egun, beraz, eskubide galera eta prekarietatearen igoera bat bizitzen ari garen garai honetan, sindikatuenganako interes falta nabaria da jendartearen zati handi batengan. Identifikazio faltaz gain, nabarmendu nahi nuke zenbait sindikatuk azken urteetan hartu duten norabidea eta horrek sortu duen langile klasearen mesfidantza. Izan ere, zenbait sindikatuk konfrontazio sindikala alde batera uzteko hautua egin dute, gobernu neoliberalen konplize izatera heldu direlarik zenbait erakunde. Honek, ezinbestean, langile klasearen fidagaiztasuna piztu du sindikatu guztiengan.

Egoera honelakoa izanda ere, azken urte eta hilabetetan, sindikalgintzaren eredu hegemoniko eta tradizioaletik aldentzen diren zenbait aldarrikapen sindikal azaleratu dira gure inguru hurbilean. Izan ere, zenbait erakunde sindikaletan konfrontazio eredua gailendu egin da, eta sektore prekarioenganako hurbilketa jazotzen ari da. Honela, gure inguru hurbilean zenbait gatazka ikusi ahal izan ditugu azkenaldian, hala nola, Estatu mailako “Las Kellys” kolektiboaren borroka, Gipuzkoako administrazioko garbitzaileena edota Bizkaiko Erresidentzietako langileen greba, beste batzuen artean. Plazaratzen ari diren borroka hauek feminizatuak izan ohi dira, langile eta sindikalista eredu tradizioaletik aldentzen den subjektua, alegia.

Lan honen bidez, pasa diren bi urteetan jazo den Bizkaiko Erresidentzietako langileen borroka aztertu nahi nuke, hainbat arrazoiengatik:

Gatazka honen bidez, egungo sektore feminizatueta bizi den prekaritatea agerian geratu da, kolektiboaren lan baldintzek erakusten duten moduan. Gainera, zerbitzu publiko izaera duen baina azpikontratua dagoen sektorea dugu, eredu honek dakarren lan baldintzen galerarekin. Gai honen bidez, aurretik aipaturiko pribatizazio eta merkantilizazioaren gaia ere islatu egiten da, eredu neoliberalak, alegia.

Guzti hau azaleratzearekin batera, galdera nagusi hau jorratu nahi nuke lan honen bidez: Bizkaiko Erresidentzietako langileek gauzaturiko greban, ahalduntze feminista egon al da parte hartu duten emakumeen artean?

Oraindik ere maskulinizatuta dagoen sindikalgintzaren baitan prozesu feminista bat gertatu izana berritzailea izan daitekelakoan nago, sindikalgintzarentzat zein mugimendu feministarentzat ere bai. Arrazoi honengatik, lan honen bidez greban zehar emandako prozesu eta ibilbidearen nondik norakoak izango ditut aztergai, ahalduntze feminista prozesua izan den ala ez aztertze helburuarekin, eta hala izanez gero, ahalduntze prozesuaren nolakotasuna ikertzeko xedearekin.

Bizkaiko Erresidentzietako Borroka honen ereduak, ondoren etorriko diren borroka sindikal feminizatueta eragin positiboa izan dezake. Esperientzia hau jaso eta aztertzearen azken arrazoi bat, beraz, prozesu honen irakaspen eta ekarpenak biltzea da, sindikalgintza feminismotik eraikitze lanean dihardutenentzako ere ekarpen baliagarria izango delakoan.

Metodologia eta lanaren egitura.

Lan hau aurrera eramateko orduan, teknika metodologiko ezberdinak erabili ditut. Lehenik eta behin, berrikusketa bibliografiko bat gauzatu dut. Teknika honen bidez, emakumeek historian zehar zein gaur egun bizi duten egoera aztertu dut, lan merkatu zein sindikatuetan, industrializazio garaitik egungo testuingururainoko ibilbidea gauzatu dudalarik. Honekin batera, ahalduntze feministari dagokionez beste atal bat ere jorratu dut, bertan ahalduntzearen teoria eta praktikaren jatorria zein egun jorratzen diren teoria ezberdinak plazaratu ditudalarik. Informazio guzti hau biltzeko iturri ezberdinetatik eratorritako testuak erabili ditut. Akademian jatorria duten artikulua izan dira gehienbat erabili ditudan iturri bibliografikoa, baina bestelako iturriak ere ageri dira lanean zehar. Lan merkatuan eta erakunde sindikaletan emakumeek bizi duten (eta bizi izan duten) egoera aztertze garaietan, esaterako, Joan Scott, Mercedes Arbaiza, Ana De

Miguel edota Silvia Pirisen idatziek garrantzia berezia izan dute. Artikulu akademikoez gain, zenbati dokumentu eta txosten erabili ditut ikerlana modu berean hornitzeko. Honela, erakunde sindikal nagusietako dokumentu, txosten eta baita zenbait eskuorri ere erabili ditut informazioa biltzeko. Erakundeotako dokumentuez gain, Euskal Herrian 1970. hamarkadatik aurrera gauzatutako topaketa feminista ezberdinen txostenak ere erabili ditut informazio iturri gisa.

Ahalduntze feministaren azterketari dagokionez, erabilitako bibliografia artikulu zientifiko osatzen da gehienbat, nagusiki Marcela Lagarde, Magdalena León edota Clara Murguialday egileak erabili ditudalarik. Guzti honekin, bada garrantzia berezia hartu duen bestelako dokumentu bat: Sophie Charlier eta Lisette Caubergs (2007)-en “El proceso de empoderamiento de las mujeres” gida metodologikoa. Izan ere, irakurleak egiaztatu ahal izango duen moduan, iturri honek lanaren atal enpirikoaren oinarria hornitu egin du.

Atal enpirikoari dagokionez, erabilitako teknika metodologiko nagusia honakoa dira: Sakoneko elkarrizketak. Hauek semi-egituratuak izan dira eta 8 pertsonari egin zaizkie: 4 pertsonako talde bat egin da, lehenik, eta 2 pertsonako beste 2 elkarrizketa, azkenik. Elkarrizketatu guzti-guztiak greban parte hartu duten emakumeak izan dira, prozesuaren inguruko kontakizuna lehen pertsonan egin dezaten bilatu baita. Grebalarien testigantzen atal garrantzitsuenak hautatu eta aztertu egin dira (betiere, egilearen iritziz eta lanaren xedeak jomuga izanik), zatiok esku artean dugun lan honetan transkribatuta ageri direlarik. Azkenik, aipatu beharra dago elkarrizketen hizkuntza gaztelera izan denez, horien transkripzioa hizkuntza berean egiteko hautua hartu dela, testigantzen originaltasuna eta esanahi osoa mantentzeko helburuarekin.

Lanaren egiturari dagokionez, ondoko ordena jarraituko da:

Ikerketaren hasieran, marko teorikoa izango dugu, eta bertan emakumeek lan merkatuan zein erakunde sindikalen baitan bizi duten egoera zaurgarria aztertuko da. Analisi hau gauzatzeko, industrializazio garaia hartuko da abiapuntu gisa, kapitalismo industrialaren sorrerak emakumeengan nola eragin zuen aztertuko delarik. Ondoren, emakumeek gaur egun bizi duten egoera aztertu egingo da lan merkatuari eta erakunde sindikaletan betetzen duten rolari dagokionez. Esan beharra dago, lan hau mendebaldeko europar kokatzen dela, eta lanak aurrera egin ahala gure lurraldera hurbilduz joango garela geroz eta gehiago, Bizkaiko Erresidentzietako egoera zehatzera iritsi arte. Marko teorikoaren

bidez, modu berean, ahalduntze feministaren inguruko oinarri teorikoak plazaratuko dira, honen bidez batez ere, atal enpirikoaren zimenduak eraikiko ditugularik.

Ondoren etorriko den atal enpirikoa, esan moduan Bizkaiko Erresidentzietako Grebalarien ahotsak gidatuko dute, horien analisisa gauzatuko delarik. Azkenik, guzti honen inguruko zenbait hausnarketa plazaratuko dira “ondorioak” atalaren bidez.

Azkenik, lanean zehar adierazita izango den moduan, seinalatutako zenbait kontu argitzeko nahiz hainbat gaitan sakontzeko informazioa lanaren bukaeran aurkitu ahal izango da, eranskinen atalean.

Has gaitezen, beraz, emakume langileen koiuntura sozial, ekonomiko eta sindikala aztertzen, greban zehar emandako ahalduntze feminista testuinguratzeko helburuarekin.

1. LANGILE BORROKATIK AHALDUNTZE FEMINISTARA: TESTUINGURUAREN AZTERKETA

Lan merkatuan emakumeek duten egoera aztertzeko garaian, gaur egun enpleguak duen sexuaren arabera segregazioari erreparatu behar diogu lehenik eta behin. Ikerketen arabera, izan ere, Euskal Autonomia erkidegoan ikasketak hautatzeko garaian, zein ondoren lan merkatuan emakumeek okupatzen dituzten lanpostuei erreparatuz gero, gizon eta emakumeen ehuneko sektore ezberdinetan modu desorekatuan ageri dira. Sektore feminizatu deritzonak, oro har zaintza lanekin harremandutako enpleguak izan ohi dira, hala nola, arlo soziosanitarioarekin edota irakaskuntzarekin zerikusia duten lanpostuak. Sektore maskulinizatuak dagokienez, ordea, arlo tekniko edota zientifikoak gailentzen dira, esaterako industria eta eraikuntza sektorea.

Egungo sexu ezberdinketa, baina, ez da sexu bereizketa “natural” baten ondorioa. Banaketa hau genero roletan oinarrituz, historian zehar eman diren prozesu sozial, ekonomiko eta politiko ezberdinen emaitza da. Prozesu honen hastapenak aztertzeko, industrializazio garaia erreparatuko diogu.

1.1.Industrializazio garaia: “Breadwinner” ereduaren zimenduak eraikiz

XVIII. mende bukaeran hasi zen lehen industria iraultzan, gizon zein emakumeak masiboki hasi ziren fabriketan lanean. Sektore batzuk feminizatuagoak ziren, hala nola ehungintzaren industria, eta beste batzuk maskulinizatuagoak, esaterako eraikuntzaren sektorea. Hala ere, gizon eta emakumeek parte hartze eta lan esparruak elkarbanatu zituzten hasiera batean.

Emakume langileek garaiko feminitate rola auzitan jarri zuten, burgesiaren idealari eta pentsamenduari kontra eginez. Izan ere, emakume langileak fisikoki indartsuak izateaz gain, emakume burgesekin alderatuta independentzia eta autonomia maila esanguratsua zeukaten, langile hauen soldatak gizonenak baino nabarmenki kaxkarragoak ziren arren.

Ildo beretik, fabriketan lanean ziharduten emakumeek, emakume burgesek baina harreman afektibo sexual askeagoak izaten zituzten orokorrean, eurek hautatutako gizonarekin ezkontzeko aukera izan ohi zutelako, neurri handiago batean behintzat. Burgesiaren praktika askeago hauek inmoraltzat jo zituen eta prostituta gisa kalifikatu zituen emakume langileak. Zentzu honetan, aipatu beharra dago garaiko langileen

baldintza eta soldata kaxkarrak zirela eta, emakume langileek zenbaitetan prostituzioan sartzera behartuta ikusten zutela euren burua, gizon burgesak izaten zirelarik bezeroak.

Garai hartan langile klaseak ez zuen burgesiaren familia eredu berbera jarraitzen. Egoerak, beharrak eta baldintzek bultzatuta, garaiko langileek solidaritatean oinarritutako loturen arabera antolatzen zuten euren egunerokotasuna; etxebizitza, jana edota ohea elkarbanatuz familia eta pertsona ezberdinen artean.

Guzti honek langilegoaren kontrako burgesiaren erreakzioa ekarri zuen, arbuio eta “nazka” sentimendu bat hedatu zelarik langilegoarekiko. Industrializazio garaian elikadura txarrak eta zikinkeriak eragindako izurriteak gero eta nabarmenagoak ziren, eta horrek langileekiko gorputz nazkagarri gisa fokoa jartzea eragin zuen. Gutxiespenaz gailendutako korrante hau Higienismo izendatua izan zen, eta langile klasea erreformatzeko zenbait neurri proposatu ziren (Arbaiza, 2014). Dena den, higienismoak emakumeengan izan zuen eragin nabarmenena, izan ere, burgesiaren arabera hauek ez ziren fabriketan lanean egon behar, bai ordea etxean familiaren zaintzaz arduratuz. Etxekotasun eza zen, burgesiaren arabera, langileria zikin, gaizki elikatua eta gaixo izatea eragiten zuena.

Langile mugimenduaren baitan diskurtso burgesa onartu egin zen hein handi batean, langile klasearen ongizatea eta osasuna zaintzearen ardura emakumeen bizkarretara bota behar zela onartzean. Modu honetan, lanaren sexualizazio prozesu bat hasi zen, langileria eta burgesia, beste eragile batzuekin batera, elkarlanean aritu zirelarik sexuaren araberako lanaren banaketan sakontzearen prozesu horretan.

Joan Scott-en (1993) arabera, sexuaren araberako lanaren banaketa, industrializazio eta kapitalismoaren indartze garaian eragile sozial eta politiko ezberdinek eragindako prozesuaren emaitza da.

Honakoak lirateke, egilearen arabera, Europa eta Estatu Batuetan jazotako prozesu honen eragileak eta euren diskurtsoak:

- Ekonomia politikoa:

XVIII eta XIX. mendeetan ekonomia politikoaren teoria eta posizionamenduak anitzak ziren arren, guzti-guztiek elementu eta ideia amankomunak elkarbanatzen zituzten modu berean. Zentzu honetan, familiako buruaren soldata, familia osoaren

erreproduktzioarako adinakoa izan behar zuenaren ikuskera konpartitzen zuten garaiko ekonomilariak, familia burua gizona izanik, noski. Garai hartan zein ondorenean eragin izugarria izan duen Adam Smith ekonomilariak, esaterako, ideia honen aldarrikapen sutua gauzatu zuen.

Beste zenbait autorek, hala nola Jean-Baptiste Say ekonomilari politikoak, emakumeek soldatarik ez zutela behar defendatzen zuten, familian sostengatu ahal zirelako euren aburuz. Arrazoi honengatik, emakumeek soldata baxuagoak izateari normala zeritzon Jean-Baptiste Sayk. Pentsamendu hau, emakumeenganako ikuskera jakin batean oinarritzen da: emakumeak gizonezkoen menpeko sozial eta ekonomikoak dira, baita familiaren zaintzaile naturalak ere bai. Rol honen “naturalizazioa” zientifikoki frogatzen ahalegindu ziren garaiko mediku eta zientzialari asko, aipaturiko argudioei zilegitasuna aitortzeko helburuarekin.

Orduko ekonomilari politikoek “biologiaren legeak” ardatz moduan hartuz, lan merkatua eta fabrika emakumeentzako lekua ez zela defendatzen zuten, euren produktibitatea urriagoa zela ziotelarik.

Ekonomia politikoaren baitan diskurtso naturalizatzaile honen hedatzeak, emakumeek bizirauteko adinako edota honen azpitik kokatzen ziren soldatak jasotzea justifikatu zuen. Honela, garai hartan ezkondurik ez zeuden emakumeak, muturreko txirotasunera kondenatuak izan ziren. Gizonezkoen aldetik, aldiz, biziraupenerako zein familiaren erreproduktzioarako beharrezko soldata jasotzea aldarrikatu zen, denborarekin aldarri hau materializatu zelarik.

- Enpresariak:

Enpresariak sexuaren arabera lanaren banaketan ere eragin handia izan zuten, batez ere enplegu motak ezberdintzeari eta gizon eta emakumeen arteko prekarietate maila desorekatzeari dagokionez.

Enplegu eskaintzak gauzaterakoan, sarritan enpresariak enpleguak sexuaren arabera sailkatzen zituzten, baita beste kategoriatan batzuen arabera ere maiz; hala nola arraza. Enpresariak, gizon eta emakumeen (zein beste kategoriatan sozial batzuen) rol naturalizatuen arabera gauzatzen zituzten delako sailkapenak. Honetaz gain, sarritan enpresariak enplegu jakinetarako emakumeak gazteak eta ezkongabeak izatea ezartzen zuten baldintza gisa.

XIX. mendean, kostuak aurrezteko enpresarien helburu nagusienetako bat bilakatu zen. Emakumeen soldatak baxuagoak izanik, hauen kontratazioa hedatuz joan zen enpresaz enpresa, lantoki askotan gizonak kanporatu zirelarik emakumeak kontratatuz.

Garai berean, zerbitzuen sektorea indarra hartuz joan zen urteen poderioz, eta emakumeak era masiboan hasi ziren sektore honetan lanean. Irakaskuntzarekin, erizaintzarekin edota bulego lanarekin lotutako enpleguei buruz ari gara, batez ere. Lan hauek feminizatuak izan ohi dira gaur egun ere, rol femeninoarekin lotzen baitira, zaintzarekin, otzantasunarekin, edota lan errepikakorrak egiteko gaitasunarekin, besteak beste.

Azkenik, aipatu beharra dago gizon zein emakumez osaturiko zenbait lantokitan, sexuaren arabera gune edota gela ezberdinak egokitzen zitzaizkiela langileei, lan-baldintza desberdinetaz gain.

- Estatu eta legegintza soziala:

XIX. mendean, haur eta emakumeei zuzenduriko zenbait lege protekzionista plazaratu egin ziren Mendebaldeko Europan eta Estatu Batuetan. Emakumeen kolektiboa babestu beharreko sektore zaurgarritzat hartzen zen garai hartan. Babes hori justifikatzeko argudio sortak, ordea, ez zuen oinarri sozialik, baizik eta sexuaren inguruko argudio biologizisten gainean eraikirik zegoen diskurtsoa, aurretik landutako eragileekin gertatzen zen moduan.

Testuinguru honen baitan, legegileek emakumeek gizonak baino ordu gutxiago egin behar zutelako lan iritzi zuten, eta hori lortzeko helburuarekin, euren lan orduak murriztu eta gaueko txandak egitea debekatu. Neurri hauek, ordea, ez ziren lantoki guztietan ezarri, baizik eta maskulinizaturik zeuden fabriketan ezarri egin ziren soilik. Honek lantokietan sexuen arteko ezberdintasunak areagotzea ekarri zuen, izan ere, gizon eta emakumeen lan ordutegiak eta txandak are gehiago ezberdindu egin ziren. Ondorio honetaz gain, neurri honek zenbait emakume arautu gabeko sektoreetara jotzera eraman zituen, horien prekarietatea areagotu egin zelarik.

Scott-en arabera, ordea, garaiko emakume feministek emakume langileen ekintza eta antolaketa kolektiboaren aldeko apustua egin zuten, Estatuarengandik zetozen neurriek ez baitzuten euren egoera hobetu.

- Erakunde sindikalak:

Erakunde sindikalek, garai hartako pentsamendu ekonomiko eta politikoaren oinarritzko ideiak bereganatu zituzten, baita zientziaren mundutik zetorren “naturaren” eta “biologiaren” ustezko legeekin bat egin ere. Era honetan, emakumeen leku naturala etxean zegoela pentsatzen zuten, eta ez ordea lan merkatuan edota sindikalgintzan. Modu berean, “familia soldata” izan zen euren garaiko aldarrikapen nagusienetako bat, alegia, gizon enplegatuen soldatak subsistentzia propiorako zein familiaren erreprodukziorako balioko zuen soldata aldarrikatzea.

Honetaz gain, ikusi dugu nola emakumeek gizonek baino soldata urriagoak jasotzen zituzten eta oro har baldintza okerragoetan lan egiten zuten. Gauzak horrela izanda, sindikatuek emakumeak aliatu gisa ordez, mehatxu bezala tratatu zituzten, izan ere, gizonen enplegua, soldata eta lan baldintzak auzitan jartzen zituztela pentsatzen zuten. Erakunde sindikaletako ordezkariak, beraz, sexuaren araberako lanaren banaketaren pentsamendua zabaltzen ahalegindu ziren, emakumen lekua etxean zegoela aldarrikatuz.

Erakunde sindikalak hastapenetatik gune maskulinizatuak izan ziren, beren baitan emakumeak onartzen zituzten sindikatuak gutxi batzuk zirelarik. Erakunde minoritario horietan, era berean, emakumeen funtzioak murriztak eta mugatuak ziren, euren kide gizonen azpitik kokatzen ziren funtzioak, alegia. Zenbait sindikatu mistotan, esaterako, emakumeek euren senar edo aitaren idatzizko baimena aurkeztu behar zuten bileretan hitz egin ahal izateko.

Dena den, aipatzekoa da zenbait sektore feminizatuen baitan emakumeek osaturiko sindikatuak sortu egin zirela, besteak beste ehungintzan edota tabakoaren industrian. Sindikalista hauek zenbait garaipen izan zituzten, eta garaiko emakumeen bigarren mailako langile estatusa aldatzea lortu ez zuten arren, zenbait lorpen izan ziren zentzu honetan. Erakunde sindikalen “berdintasuna langile guztientzako” edota “soldata berdina lan berdinatik” aldarriak auzitan jarri zituzten emakume hauek, sindikatu nagusiek langile klasearen erdia baztertzen zutela agerian jarri zutelarik.

Eragile politiko eta sozial guzti hauek (ekonomia politikoa, enpresariak, Estatua eta eragile sindikalak) oinarri diskurtsibo bera elkarbanatzen dute, emakume identitatearen rol naturalizatua, alegia. Zaintzailea, ama, emazte dependientea, otzana, ahula, pazientzia duena...hauek dira naturalizatuta dauden ezaugarrietako batzuk emakumeen

rolari dagokionez, garaiko zientzialari, mediku eta biologoek euren teoriaren bidez justifikatutakoak.

Honela, XIX. mendeko industrializazioarekin batera, arrazoibide hegemonikoaren bidez ezberdintasun sexualak azpimarratu egin ziren, ezberdintasun sozialak justifikatuz. Modu honetan lan merkatuan honako egoerak garatu egin ziren: gizon eta emakumeen arteko soldata eskala bikoitza lantokien baitan, enplegu maskulino eta femeninoen arteko balorazio ezberdina, gizonezkoen burututako estruktura enpresarialak, emakumeen baztertzea sindikatuen baitan, eta abar.

Emakumeek historian zehar etxe barruan zein etxetik kanpo lan egin duten arren, XIX. mendean aipaturiko diskurtsoen bidez lan produktibo eta erreproduktibo artean arrakala handia sortu zen. Enplegua eta etxeko lanak alden egin ziren modu intentzionatuan, ustez maskulino eta femenino diren lanen artean arrakala eraginez.

Erakundeen kultura sindikala Industrializazio garaian errotu egin zen. Garai hartan, gizonak zein emakumeak lantokietan ziharduten arren, euren arteko lan baldintzak ez ziren parekideak inondik inora. Aurretik esan dugun moduan, sexuaren araberako lanaren banaketa azpimarratzeko prozesuan parte hartu zuten eragileen artean erakunde sindikalak ditugu, historikoki gune maskulinizatuak izan direnak. “Breadwinner” eredu defendatu zuten sindikatuek, hau da, gizonezkoen soldata familia guztiaren beharrezko betetzeko adinakoa izan behar zuen. Rol honen kontrako aldean, etxekoandreaken figura aldarrikatu eta moldatu egin zuten erakunde sindikalek, aipaturiko gainontzeko eragileekin batera. Honela, emakumeak ez ziren subjektu sindikal edo aliatu gisa pertzibitu, eta horrexegatik sarri sindikatuetatik kanporatuak izan ziren, edota horietan parte hartzea mugatu.

Hala ere, langile mugimenduaren baitan baziren ahotsa altxatzea lortu zuten zenbait emakume, hala nola XIX. mendeko feminismo sozialistaren aitzindariak, zeinak esparru publiko eta pribatuaren arteko mugak apurtzen ahalegindu ziren.

Feminismo sozialistaren aitzindariak

Sozialismoaren sorreratik, korrante feministak eta sozialistak topo egin dute eta elkar elikatu egin dira. XIX. mendearen hasieran, mendebaldeko estatuetan lehenengo korrante sozialista sortu zen, idealismoa eta armonizismoa zirelarik bere ezaugarri nagusiak. Korrante hau sozialismo utopikoa dugu, hain zuzen ere.

Sozialismo utopikoaren sortzaileen artean Flora Tristán (1803-1844) dugu. Pentsalari honek bere obretan garaiko emakumeen egoera lantzen zuen, hala nola emakumeen gutxiagotasun ustez naturala justifikatzen zuten zientzia eta jendarteren kritika eta gaitzespena egin. Tristán-en arabera, emakumeen emantzipaziorako gakoa hezkuntzan zegoen. Armonizismoaren pentsamenduari jarraiki, emakumeen askapena gizonentzako ere onuragarria zela aldarrikatzen zuen, langileriaren emantzipazioa klase burgesarentzako ere hala izango zela uste zuen moduan. Honela, eraldaketa soziala txanponaren bi aldeetatik bultzatu behar zela zioen, gizon zein emakume, langile zein burges (Ana de Miguel, 2005).

XIX. mendearren bigarren erdialdean, sozialismoaren baitan beste adar bat sortu zen: sozialismo zientifikoa. Korrante hau sozialismo marxista ere deitua izan da gerora, Marx eta Engels izan baitziren teoria hau bultzatu zuten autore nagusienak eta ezagunenak. Engels emakumeen zapalkuntzaren jatorria azaltzen ahalegindu zen, Familiaren, Estatuaren eta Jabetza Pribatuaren sorrera (1884) lanaren bidez. Obra honetan, autoreak emakumeen zapalkuntza jabetza pribatuaren sorreran sortu zela defendatzen zuen. Ondorioz, sozialismo marxistaren baitan honako sinismena zabaldu zen: gizon eta emakumeen arteko desoreka amaitu egingo da jabetza pribatua amaituko denean. Baieztapen honek emakumeen borroka beti bigarren maila batean kokatzea ekarri zuen, borroka sozialistaren menpeko bilakatu zelarik. Izan ere, emakumeen diskriminazioa klase borrokaren bidez amaituko zela zabaldu egin zen.

Era berean, Clara Zetkin (1857-1933) eta Aleksandra Kollontai (1872-1945) pentsalari eta militanteek emakumeen zapalkuntzaren inguruko teoriak plazaratu zituzten. Zetkin militante komunista alemaniarra, emakume langile eta burgesen arteko ezberdintasunak azpimarratu zituen, bere ustetan euren arteko interes eta aldarrikapenak kontrajarriak zirelarik. Emakume burgesek jabetza pribatuaren aldeko borrokan ziharduten bitartean, langileek horren desagerpena aldarrikatzen zuten. Modu berean, burgesiaren familia-egitura akordio ekonomikoetan oinarriturik zegoela zioen, hala nola ezkontza. Langileen arteko loturak eta familia ereduak, ordea, solidaritatean eta komunitatean oinarriturik zeuden hein handi batean eta beharrak eramanda. Zetkinen aburuz, gainera, emakume langileek independentzia ekonomikoa zeukatenez, ez zuten gizon batekin ezkontzeko beharrik.

Aleksandra Kollontai buruzagi Bolcheviqueak teoría marxista kritikatu egin zuen. Berak ez zuen uste gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun sozialen jatorria jabetza pribatuan zegoela, baizik eta dominazio eta zapalkuntza harremanak haren sorrera baino lehenago bazirela. Hala ere, jabetza pribatuak aurretik sortutako ezberdintasunak areagotu zituela pentsatzen zuen Kollontaik. Bere ustetan, beraz, harreman parekideak lortzeko ez zen nahikoa emakumeak lan produktiboan aritzea eta jabetzaren kontrola lortzea. Aldiz, eguneroko bizitzaren eta ohituren eraldaketa sakona behar zela zioen, sexuen arteko harremanak iraultzeko helburuarekin.

Modu honetan, Kollontai sozialismoaren eztabaidaren baitan familia edota sexualitatea bezalako gaiak sartzen ahalegindu zen, bere kide askoren partetik kritikak jaso zituelarik ustez garrantzia ez zeukaten gaiak jorratu nahi zituelako, “benetako borrokari” indarrak kentzen zizkiolakoan.

Honekin batera, aipatu beharra dago Kollontaik hasiera batean klase ezberdinetako emakumeek zenbait interes eta borroka amankomun zituztela defendatzen zuen arren, denborarekin kritikoagoa bihurtu zela feminismo burgesarekiko. Garaiko emakume burgesen borroka nagusiak honakoak ziren: enplegu bat izateko eskubidea, eta harreman afektibo sexual askeagoak izatea. Emakume langileek jada lan egiten zuten, baita harremanak modu askeagoan bizi ere. Gainera, praktika horiek gauzatzeagatik emakume langileak gogor kritikatuak izan ziren burgesiarendandik. Kollontaik kontraesan hau azaleratu egin zuen, eta emakume burgesen borrokarekiko aldendu egin zen. Kollontaik, emakumeen askapenaren abangoardian emakume langileak kokatzen zituen, eta burgesen garaipenak aurrekoen borroken ondorio zirela defendatu zuen.

XX. mendean, mendebaldeko marxista feministek, aitzindari hauek ziotena aldarrikatzen jarraitu zuten. Mugimendu honen iritziz, genero zapalkuntzaren jatorria ez dago jabetza pribatuaren sorreran. Aldi berean, lana hitzaren birkontzeptualizatu egin zuten feminista hauek. Euren ekarpenaren funtsa honakoa izan zen: lana ez da soilik soldatapean eta arlo publikoan gauzatzen dena, aitzitik, historikoki emakumeek gauzaturiko zaintza eta etxeko lanak jendartea eusteko behar beharrezko lanak dira, ikusezin bihurtuak eta baloratu gabeak izanik. Feminista marxista hauek, beraz, lanaren sexuaren araberako banaketa azaleratu zuten, batik bat arlo pribatuan ematen diren erreprodukzio lanak eztabaidaren lehen lerroan kokatuz. Ekarpene hau feminismoak zientzia ekonomikoari egindako nagusienetako bat da.

1.2.Egungo emakumeen egoera lan merkatuan

Gaur egun, lan merkatuan ere industrializazio garaian eragindako sexuaren arabeko lanaren banaketa sistemak bizirik dirau. Honela, maskulinizatuak eta feminizatuak dauden enpleguek bere horretan dira, azken hauek zaintza lanekin eta rol femeninoarekin zerikusia duten lanak izaten direlarik. Behean ikus dezakegun 1. taularen arabera, lan merkatuan dagoen segregazio hau argi eta garbi erakusten zaigu. Izan ere, bertan ikus daiteke nola 2012an, emakume langileen kopurua %50 baino gehiago izatera iristen den soilik “Hezkuntza – Osasuna” (%69,6) eta “Bestelako zerbitzuak” (60,9%) jarduera-adarretan. “Merkataritza-Zerbitzuetan” ere ia erdira iristen delarik emakumeen kopurua (%49,2):

1. Taula: Euskal AEko emakumezkoen enpleguaren pisu erlatiboa, jarduera-adarraren arabera (enplegu guztiaren %). 2012.

	2012	2008	2004	2000
Guztira	42,4	40,7	37,8	35,7
Energiaindustria eta antzekoak	18,5	19,2	17,8	13,3
Metal-industria	17,5	17,5	15,7	14,5
Manufaktura-industria	29,1	26,6	25,4	25,3
Eraikuntza	12,0	11,6	8,4	7,7
Merkataritza, ostalaritza eta konponketak	51,6	50,4	50,8	45,0
Garraioak eta komunikazioak	22,4	24,2	20,7	15,8
Merkataritza-zerbitzuak	49,2	49,2	45,2	45,2
Hezkuntza-Osasuna	69,6	70,4	69,7	68,1
Bestelako zerbitzuak	60,9	61,4	59,1	52,7

Iturria: Eustat¹

Aldi berean, banaketa hau ez da segregazio hutsean geratzen, baizik eta balio ezberdina ere ematen zaie maskulinizatuta edota feminizaturik dauden enpleguei. Horrek eragina du beharginen soldatengan zein lan baldintza orokorretan. Ondorioz, 2018an gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala %24,3koa zen, urteko 7552 eurokoa², hain zuzen ere.

Hori gutxi balitz, esan dezakegu egungo legegintza laborala sexuaren arabeko lanaren banaketan oinarrituriko instituzioa dugula, horren adibide garbia izanik Langileen Estatutuaren markotik kanpo geratzen diren Etxeko Langileen egoera prekariora.

¹ Iturria: http://www.eustat.eus/ele0005800/tbl0005894_e.html

² Iturria <http://emakunde.blog.euskadi.eus/eu/2018/03/eaeko-egoeraren-diagnostikoa-aurkeztu-du-emakundek-soldata-arrailaren-mahaian-eta-erantzun-integral-baten-beharra-azpimarratu-du/>

Kanporaketa honen ondorioak honakoak lirateke: langabeziagatik prestazio eza, gaixotasuna eta lan-istripuagatik bajarik ez izatea, edota batzuetan lan-kontratu eza, beste zenbait galerarekin batera. Gaur egun ere kolektibo honen egoerak antzeko dirau, eta euren eskari nagusietako bat Etxeko Langileen marko legala Langileen Estatutuarekin parekatzea da, hau da, langile gisa gainontzekoek dituzten eskubide berdinak izatea.

Oro har, enplegu sektore feminizatuen prekarietatea nabarmenagoa izan ohi da, eta azken hamarkadetan aurrera eraman diren lan erreformek are gehiago okertu egin dute egoera zentzu honetan. Estatu mailan eta ondorioz EAEn lan arloan aplikatu diren lege eta arau hauek, lan merkatuaren prekarizazioa eta flexibilizazioa ekarri dute modu orokortuan, baina baldintzen kaxkartze honek emakumeengan zein beste kolektibo prekarizatuengan modu gogorragoan izan du eragina, hala nola etorkinen edota gazteen kolektiboan.

Lan erreformen ondorioak emakumeengan

Frankismoa amaitu eta ondorengo urteetan, alderdi politikoak zein sindikatuak legeztatuak izan ziren garaian, alegia, langile borroka ahaltu zebilela esan daiteke. Horrek lan harremanen erregulazioa ekarri zuen, Langileen Estatutua deritzona sortu zelarik 1980. urtean.

Dena den, Langileen Estatutua plazaratu baino hiru urte aurretik gertatutakoari erreparatu behar diogu. 1977. urtean, 43/77 lege-dekretua kaleratu zen, zeinetan langileen finkotasunarekin amaitzen den, eta behin behineko lanaldiari atea ireki zitzaion (Hernández, Jose Manuel, 2004). Honela, borroka sindikala momentu onean zebilela esan badezakegu ere, aipaturiko proiektu neoliberala martxan jarri zuen Espainiako Gobernuak.

1980. urtean plazaratu zen Langileen Estatutuaren bidez, langileen onerako ziren oinarritzko zenbait eskubide arautu ziren, Estatutuaren marko barruan kokatzen diren beharginen baldintzetan hobekuntza batzuk izan zirelarik. 4/1983 legearen bidez, esaterako, asteko lanaldia 43 orduetik 40-ra murriztu egin zen. Beste alde batetik, opor egunak 23 egun izatetik 30 egun naturalera igaro zen (Fundación 1º de Mayo, 2012).

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago ondorengo lan-erreformen joera ez zela halakoa izan, lan merkatua malgutzeko ahalegina izan baitzen nagusi. Izan ere, Langileen

Estatutuaren bidez ez zen soilik lan harremanen marko berria finkatu, baizik eta merkatu libre ahalbidetuko zuen araudiaren oinarriak ere ezarri egin ziren. Honen adibide dugu, Estatutuaren bidez, behin behineko kontratuak egiteko aukera erregulatu izana.

Jarraian aurkituko dugun 2. taularen bidez, era laburtu eta garbian ikusi ahal izango dugu Espainiar Estatuko lan erreformen kronologia bat, baita legegintza honek jendartearengan izandako eragin nagusiak ere bai:

2. Taula: Espainiar Estatuko lan erreformen kronologia, eduki nagusiak eta eraginak.

DATA	EDUKI NAGUSIAK	ERAGINA
1984	- Praktika eta formakuntza kontratuen gehienezko denbora 3 urtetara luzatzea. - Langabezi eta jubilazio prestazioak lanaldi partzialarekin uztartzea ahalbidetzea.	- Gazteenganako prekarizazioa. - Lanaldi partziala erraztea. Ondorioz, emakumeen prekarietatean sakontzea, zaintzaile rola indartzen den bitartean.
1992	- Langabezia prestazioa murriztea eta berau eskuratzeko baldintzak gogortzea.	- Biztanleriaren txirotasuna areagotzea, eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten kolektiben artean bereziki.
1993	- Kontratazioak INEM bidez gauzatzeko derrigortasuna kentzea. - Aldi Baterako Lanerako Enpresak (ABLE/ETT) baimentzea. ³	- Enpresen kontratazio askea ahalbidetzea, ondorioz kontratazio irizpideen eta lan baldintzen kontrola galduz estatuaren partetik. - Langileen azpikontratazioa, lan berdina eginez baldintza okerragoetan.
1997	- Kaleratzeen kalte-ordaina jaistea kasu batzuetan ⁴ : urteko 45 egun, 42 hileko gehienezkotik, urteko 33 egun, 24 hileko gehienezkora.	- Lan merkatuaren ziurgabetasuna eta malgutasuna areagotzea. Biztanleriaren prekarietatean sakontzea.

³ Gaur egun Aldi Baterako Lanerako Enpresen bidez kontratatutako langileek gutxienez soldata eta jardunaldi baldintza berdinak izatea lortu den arren, “zerbitzu enpresak” edo “outsourcing” deritzonak sortu egin dira, zeinak lehen ABLEek betetzen zuten papera jokatzaren lan merkatuan.

⁴ Honako kasuetan jaitsi zen kalte-ordaina: Enpresak arrazoi objektibaren bidez argudiatuz, langile bat edo batzuk kaleratzen zituenean eta ondoren kaleratzea bidegabekoa izan dela frogatzen zenean.

1999	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleratzeen aurrean haurdun dauden emakumeenganako babesa. - Haurdunaldiko arriskuaren aurrean babesa ezartzea. - Senide eta seme-alaben zaintzarako ordaindutako baimenak ezartzea. 	<p>Zaintza lanak eta bizitza profesionala uztartzeko aurrerapausoak. Modu berean, emakumeen genero rola indartzea, lan erreproduktiboaren pisua beren gain jarriz berriro ere.</p>
2002	<ul style="list-style-type: none"> - Langabezia prestazioa jasotzeko baldintzak gogortzea. - Tramitazio soldaten ordainketa kentzea⁵. 	<ul style="list-style-type: none"> - Abenduak 20ko greba orokorra eragin zuen, langabeziari dagokionez onartutako neurriak atzera bota zirelarik. - Langileen txirotasuna eta prekaritatea areagotzea.
2006	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratu mugagabeak egiteagatik diru-laguntzak enpresei. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio mugagabea bultzatzearekin batera, enpresak aberastea.
2010	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleratzeak gauzatzeko arrazoi objektiboetan justifikazio beharra malgutzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleratzea erraztea, lan merkatuaren ziurgabetasuna eta malgututasuna handitzea.
2011	<ul style="list-style-type: none"> - Estatu mailako Negozioazio Kolektiboari lehentasuna ematea, lurraldeetako NK-a indargabetzeko aukera zabalduz. 	<ul style="list-style-type: none"> - Estatalizazioa⁶: lurraldeetako hitzarmenak blokeatzea, hitzarmen estatalak aplikatzeko. Honek sektore ezberdinetako prekarizazioa dakar. Modu berean, lurralde ezberdinetako antolakunde sindikalak desaktibatzen saiakera bat ere bada.
2012	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleratzeak merketzea: bidegabeko kaleratze kasu guztietan 33 eguneko kalte ordaina ezartzea, 24 hilabeteko gehienezkoarekin. - EEE/ERE-ak aurrera eramateko justifikazio arrazoiak malgutzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleratzeak erraztea, lan merkatuaren ziurgabetasuna areagotuz. - Kaleratze kolektiboak erraztea, ziurgabetasuna eta txirotasuna

⁵ Tramitazio soldata langileak kaleratzean eta behin betiko ebazpena atera arte izandako soldata galera horren konpentsazioa da.

⁶ Hostalaritza sektorearen Estatalizazioaren bidez, Bizkaiko jangeletako langileak euren soldata %50-ean murriztuta ikusteko arriskuan daude, beste eskubide galera batzuekin batera.

-
- Prestakuntza kontratuak egin ahal izateko adin muga 30 urtetan ezartzea, aurretik 25 urtetan zegoelarik muga.
 - Lanaldi partzialen kasuan, aparteko orduak egiteko aukera zabaltzea.
 - Ultraaktibitatearen⁷ desagerpena.
 - Inaplikazioa edo “Descuelgue” delakoa: arrazoi objektiboak direla eta, enpresa hitzarmeneko hainbat artikulua ez aplikatzeko gaitasuna.
 - Lan baldintzen aldaketa substantziala, mugikortasun funtzionala eta mugikortasun geografikoa.
 - Enpresa mailako hitzarmenei lehentasuna ematea.
- zabalduz langileengan.
 - Gazteen prekarietate egoeran sakontzea, baldintza kaxkarrak adinean luzatuz.
 - Emakumeengan eragingo du neurri honek gehienbat, arlo produktibo zein erreproduktiboan lan esplotazioa areagotuz.
 - Hitzarmena indarrean ez duten sektoreen ziurgabetasuna eta lan baldintzen prekarizazioa. Estatalizazio prozesuan sakontzea.
 - Langileen lan baldintzen malgutasuna, horiek enpresaren etekin edota nahietara moldatuz.
 - Langileen lan baldintzak, lanpostua edota lurraldez aldatzea enpresen etekin edota nahien arabera. Ondorioz, ziurgabetasuna, malgutasuna eta prekarietatea sortzen du. Langileek neurriari uko eginez gero, gainera, jasotako kalte-ordaina ohiko kaleratze batena baina baxuagoa da. Sarri honelako prozesuen bidez ezkutuko kaleratzeak gauzatzen dira.
 - Negoziazio kolektiboa enpresetara mugatzea, langileen negoziatzeko boterea mugatzen delarik modu honetan. Lurralde mailako borroken desaktibazioa.
-

Iturria: norberak egina.

⁷ Ultraaktibitatea, esparru bereko beste bat sinatu ezean, hitzarmen jakin batek modu mugagabeen indarrean irauteko zuen gaitasuna zen. 2012ko lan erreformaz geroztik, ultraaktibitatea urtebetera mugatu da.

Taulan ikusten den moduan, norabide neoliberalak markatutako lan erreformak izan dira Espainiar Estatuan aurrera eraman direnak. Modu honetan, lan merkatuaren flexibilizazioa eta prekarizazioa hazi egin da Estatu zein EAE mailan. Honela, aldi baterako kontratazioaren orokortzea, enpleguaren flexibilizazioa, autoenpleguaren gorakada, kaleratzearen merketzea edota lurralde mailako hitzarmenak baliogabetzea ekarri du Estatuko lan arloko legediaren bilakaerak, beste zenbait neurriren artean.

Espainiar Estatua Europa mailan aldi baterako enplegu tasa altuena duen lurraldea da (Alcañiz eta Monteiro, 2016). Datu estatistikoek dioten arabera, ordea, azken urteetan aldi baterako kontratazioak behera egin du, baina zenbait adituk fenomeno hau krisi garaian izandako kaleratzeekin lotzen dute. Honelako egoera ekonomikoak ematen direnean, izan ere, lehenengo kaleratuak aldi baterako kontratuak dituzten langileak izan ohi dira, lehen kaltetuak. Honek ere langileek beren eskubideak aldarrikatu eta defendatzeko garaian eragina izan du, aldi baterako kontratatua izanez gero, kontratua ez berritzearen mehatxua izan ohi da eta. Mota honetako kontratazioa feminizatua dago, nahiz eta hainbat egileren arabera, gizonetzkoen aldi baterakotasunak gorunzko joera hartu duen. Lan baldintza kaxkarren orokortze honi, zenbait autorek “gizonetzkoen lan baldintzen feminizazioa” deritzote (Virginia Ferreira, 2013).

Aldi baterako eta jardunaldi murriztuko enpleguez gain, bada azkenaldian gero eta indar gehiago hartzen ari den diskurtsoa produkzioaren munduan: autoenpleguaren aldekoa, alegia. Hainbat politikari zein ekonomilari neoliberalak, ekintzailtza, enpresak sortzea eta autoenplegua aldarrikatzen ari dira publikoki, prekarizazio aldentzeko eredu desiragarria balitz bezala. Aipatzen ez dena, aldiz, modalitate honetako enpleguaren lan baldintzak dira. Ezegonkortasuna nagusi da autoenplegu kasu gehienetan, eta ez da desenplegua edota gaixotasuna bezalako prestazioak jasotzeko eskubiderik sortzen. Autoenplegatuen soldatak ere, oro har kaxkarragoak izaten dira, %40 baxuagoak izatera iristen direlarik (Alcañiz eta Monteiro, 2016). Autoenpleguaren arloan gizonak nagusi diren arren, azken urteetan emakume “ekintzaile” kopurua nabarmen ari da gora egiten.

Guzti honi denboraren banaketa desorekatua gehitu behar diogu, sexuaren araberako lanaren banaketarekin zuzenean loturiko gaia dugularik modu berean. Izan ere, soldata arrakalaz gain, gizon eta emakumeek etxeko eta zaintza lanei eskeintzen dioten denbora ezberdintasuna “zaintzaren arrakala” izendatua izan da (Alcañiz eta Monteiro, 2016).

Ordainsaririk gabeko lan karga gehiarri honek emakumeen bizitzen prekarizazioa dakar ezinbestean.

Aipaturiko zaintzaren arrakala horren ondorioz, lanaldi murriztuko enpleguaren gehiengoa emakumezkoek betetzen dute. Mota honetako kontratazioak bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzeko aukera ematen du, beste hitz batzuekin, erreproduktibo eta produktibo deritzon lanak aurrera eraman ahal izateko, alegia. Hala ere, lanaldi murriztuak soldatan galera nabarmena dakar, baita eskubide sozialetan ere bai, besteak beste jubilazio, desenplegu, gaixotasun edota bestelako prestazio kontributiboei dagokienez, kaxkarragoak bilakatzen baitira.

Honen ondorioz, lanaldi murriztuko kontratuak sektore feminizatuetan ematen dira batik bat, hau da, sozialki baloratuta ez dauden enpleguetan. Horrek diskriminazio bikoitza eragiten du: lanaldi murriztua izateagatik lanaren soldata txikiagoa izatea alde batetik, eta sektore feminizatu horien hitzarmenetan jasotzen diren baldintzak okerragoak izatea beste sektore batzuekin alderatuz, bestetik (Alcañiz eta Monteiro, 2016).

Aurretik aipatu dugun moduan, gainera, azken lan erreformetan eragindako negoziazio kolektiboaren “estatalizazioa” bizitzen ari gara azken urteetan, hitzarmen berri bat sinatu ezean aurrekoa iraunarazten zuen “ultraaktibitatea” izeneko printzipioa bertan behera utzi delarik, eta lurraldeetako iraungipena amaituz gero Estatu mailako hitzarmenei lehentasuna eman zaielarik lan erreformen bitartez. Prozesu honek, EAEko enplegu sektore ezberdinetako lan baldintzen galera ekarri du, Estatu mailako hitzarmenak, oro har, Bizkaia, Gipuzkoa edota Arabakoak baina kaxkarragoak izan ohi direlako.

Beste alde batetik, eta EAEn lan arloan ematen diren akordio eta joerei erreparatuz gero, egoera xamurragoa ez dela ikus dezakegu. Honen adibide dugu administrazio publikoan geroz eta hedatuago dagoen zerbitzuak azpikontratatze joera. Modalitate honen bidez, administrazioetatik zerbitzu publikoak eskaintzeko enpresa pribatuak kontratatu egiten dira. Honek esan nahi du, lehiaketa publikoaren bidez administrazioak enpresei baldintza minimo batzuk jartzen dizkietela eta gainontzeko kudeaketa enpresen esku geratzen dela, hala nola lana aurrera eramaten duten langileen soldata eta lan baldintzak.

Hau izan da, Bizkaiko erresidentzien borrokan azaleratutako arazo nagusietako bat. Izan ere, administrazio publikoak zuzenean kudeaturiko adinekoen egoitzetako langileekin

alderatuta dituzten baldintza ezberdinak salatu dituzte grebalariek: lan ordu gehiago, soldata murriztagoa, gaixotasun edota istripuaren aurrean babes txikiagoa, beste desoreka batzuen artean.

Bizkaiko erresidentzien sektorea

Esan bezala, erresidentzia publikoak zein pribatuak aurki ditzakegu Bizkaian, enpresa pribatuek kudeatzen dituzten egoitzak ugariagoak direlarik.

1990. hamarkadatik aurrera azpikontratazioak gorakada izugarria izan zuen, eta ondorioz adinekoen egoitza pribatuen kopuruak gorakada handia izan zuen. Zuzenean administrazioak kudeatzen ez dituen egoitzetako patronal eta enpresaburuek, izan ere, erakunde publikoetatik dirua jasotzen dute zerbitzua eskaintzeko helburuarekin. Erresidentzia horietako langileen eskubide eta baldintzak, ordea, eredu publikoan dauden langileenarekin alderatuz nabarmenki okerragoak dira. Ondoriozta dezakegu, beraz, erresidentzien zerbitzua kudeatzen duten enpresa pribatuek etekin esanguratsua ateratzen dutela langileen kontura, azpikontratazio sistemak halaxe ahalbidetzen baitu.

1990. hamarkadan eta 2002. urtera arte, gainera, Bizkaiko erresidentzietako beharginei Estatu mailako hitzarmena aplikatzen zitzaien, horrek dakarren soldata eta baldintza galararekin lurralde mailako hitzarmenekin alderatuz gero. 2001. urtean aplikatzen zen hitzarmen estatalaren arabera, esaterako, gerokulture baten soldata gordina honakoa izan ohi zen: 611,37€ gordin, 14 ordainketetan banatua. Hau guztia gutxi balitz, urte horietan kontratazioaren motaren gehiengoa aldi baterakoa zen, sektore feminizatu honen prekarietatean are gehiago sakonduz.

2002. urtetik aurrera, langileen inplikazio eta lan sindikalaren bitartez, Bizkaia mailako hitzarmenak lortu egin ziren, lan baldintzak hobetuz joan zirelarik. Dena den, arlo publikoan lanean dabiltzan beharginekin lan baldintzekin konparatuta nabarmenki kaxkarragoak dira azpikontratutako erresidentzietako langileen baldintzak.

Lan honen bidez aztergai dugun gatazka, Bizkaiko Erresidentzietako bosgarren hitzarmena lortzeko aurrera eramandako borroka dugu. Hitzarmen honen aurreakordioa, bi urteko borroka eta 378 greba egun egin ondoren sinatu egin zen, ELA eta UGT sindikatuen eskutik. Akordioa 2016 eta 2020 urte bitartean indarrean egongo da, eta hauek izan dira eduki nagusiak:

- Lan erreformen aurkako klausula sozialen aplikazioa eta aplikaziorako bermea.
- 140 euro baino gehiagoko soldata igoerak.
- Jardunaldia 1592 orduetara murriztea, 106 ordu gutxiago, alegia.
- 20 minutuko atsedenaldirik lanaldiaren baitan eta ordaindua.
- Laneko gaixotasun edota istripuen aurrean, soldataren 100%-aren ordainketa, 365 egunetan zehar.
- Igandeetako plusa 1,70 €-tik 2,75 €-ra igotzea.
- Formakuntzarako 20 ordu, lan jardunaldi gisa hartuko direnak kontuan.
- Gaueko txanden plusaren igoera.

1.3.Egungo emakumeen egoera sindikatuetan

Langile mugimenduak industrializazio garaitik gaur egunera arte aldaketa nabarmenak jasan ditu testuinguru historiko eta soziala eraldatu egin delako, eta ondorioz praktika politiko eta sindikalak ere aldatu egin dira, ezinbestean.

80. eta 90. hamarkadetatik aurrera, Europan sindikatuak atxikimenduak behera egin zuen, erakundeok afiliazioa era nabarmenean galtzen hasi zirelarik. Garai hartan, itun sozialak deritzon fenomenoak sortu zen. Itun hauen bidez, sindikatuak Estatuko zein Patronaleko ordezkariekin bildu egiten ziren babes sozialarekin lotutako akordioak isteko. Era honetan, sindikatuak rol teknikoago bat jokatzeko hasi ziren, eta ondorioz negoziazio kolektiboa ahuldu egin zen, defentsiboagoa bilakatuz. Adelheid Hege sindikalgintzan aditu eta ikerlariak, 2017an hizlari gisa parte hartutako jardunaldi batzuetan⁸, Frantziako Macronen lan erreforma jarri zuen aipaturikoaren adibidetzat: “sindikatuak jokoan sartzen dira, baina erabiliak dira, azken finean langile klasearen eskubideen murrizketa ekarriko duen jolas bat besterik ez baita”.

⁸ Adelheid Hege, “Negoziazio Kolektiboa Europan”, Globalizazioa, lana eta botere sindikala. Resumen de las intervenciones de un seminario internacional. Manu Robles-Arangiz Institutua. Gai monografikoak 54, 2017ko abendua.

Christian Dufour ikerlariak, bere aldetik, Europako sindikatuen despolitizazio prozesuan jartzen du arreta⁹. Bere arabera, sindikatuak funtzio teknikoetan espezializatu egin dira, afiliatuen beharrei teknikoki erantzuten, alegia. Honek, egilearen arabera, langile klaseaz sortu duten ikuspegiak kanpo uzten ditu lan zentroetatik kanpo geratzen diren pertsonak, edota langile prekarioenak. Despolitizazioaren eraginez, langile klasearen kontzepzio murrizta maneiatuko lukete, beraz, sindikatuek.

Guzti honetan, Melanie Dufour-Poirier ikerlariak sindikatuak zilegitasun krisia pairatzen ari direla gehitzen du¹⁰. Egile honek, sindikatuetakoa esturturetan lanean diharduten pertsonak egungo langile klasea ordezkatzeko ez dutela dio. Izan ere, egungo langileria gaztea eta prekarioa da, eta geroz eta feminizatuagoa dago. Sindikatuetakoa ordezkariak, ordeak, helduak, zuriak eta gizonak izaten dira orokorrean. Honek, Dufour-Poirieren ustetan erakunde sindikal eta langileriaren arteko distantziamendua areagotu egiten du, pertsona prekarioen afiliazioa gero eta zailagoa suertatzen delarik, oro har.

Honetaz gain, Dufour-Poirier-ek erakunde sindikalen borroka molde eta praktikak ere nabarmentzen ditu zilegitasun krisia areagotzeko faktore gisa. Bere iritziz, pertsona gazte eta prekarioenak, korporatibismo klasikoaren eremuan baino, mugimendu sozialen funtzionamenduan sentitzen dira parte. Modu honetan, sindikatuek euren praktiken berrikusketa egin beharko lukete sektore prekarioenetara iritsi ahal izateko eta fokua erreibindikazio berrietara zabaltzeko.

Arrazoi guzti hauengatik, sarri sindikalgintzak eta feminismoak ez dute elkar topo egiten. Emakumeen lan eta bizi baldintza prekarioak ezin baitira sindikatuen marko korporatibistaren baitan mugatu. Are gutxiago, beraz, emakume gaztea izanda, edota etorkina, edota sindikalgintzaren iruditegi tradizioaletik aldentzen diren beste hainbat zapalkuntza pairatzen dituen pertsona izanda.

⁹ Christian Dufour, "Sindikatuak eta alderdi politikoak", Globalizazioa, lana eta botere sindikala. Resumen de las intervenciones de un seminario internacional. Manu Robles-Arangiz Institutua. Gai monografikoak 54, 2017ko abendua.

¹⁰ Melanie Dufour-Poirier, "La crisis del sindicalismo", Globalizazioa, lana eta botere sindikala. Resumen de las intervenciones de un seminario internacional. Manu Robles-Arangiz Institutua. Gai monografikoak 54, 2017ko abendua.

Feminismoa eta langile mugimendua Euskal Herrian

Euskal Herrira hurbilduz gero, Frankismoa amaitu eta ondorengo urteetan sindikatu ezberdinak legeztatzekeo prozesu bat eman zen. Urte horietan, lehenagotik ere sindikatuetan militantzia lanetan ziharduten emakumeen ahotsak gehiago hasi ziren entzuten, eta hala jaso ditzakegu gaur egun, 70. hamarkadatik hona Euskal Herrian egin diren Topaketa Feministen transkripzioen bidez, hain zuzen ere.

Sozialismoaren baitan hainbat ideia eta ekarpen feminista bor-borean zeuden garai hartan gainera, eta langile mugimenduaren artean eta sindikatu ezberdinen baitan eztabaida piztu zuten zenbait emakume feministek. Eztabaida hauen nondik norakoak, 70. Hamarkadatik hona Euskal Herrian bizitako Topaketa Feminista ezberdinen aktetan islaturik geratu ziren.

70., 80. eta 90. hamarkadetan jazotako jardunaldien analisiaren bitartez hainbat ondorio atera ditzakegu. Hasteko, txostenetan argi islatzen da emakumeak hastapenetatik erakunde sindikal ezberdinetako parte aktibo direla, nahiz eta denboran zehar ikusezinak eta gutxietsiak izan diren. Hasiera batean, gainera, erakunde ezberdinen baitan ematen ziren sexuaren arabeko funtzioen banaketak oso nabarmenak izan ziren, lehenengo zein bigarren topaketetan hizlariak azaleratu zuten arabera. EMK eta LKI alderdietako emakumeek, esaterako ondorengoa plazaratu zuten:

“Nork idazten du edo hitzaldi bat eman egoera ekonomikoaz edo arazo nazionalari buruz? Erantzuna jakina dago. Lan materiala: diru-kontuak, klitxe egitea (gizonak txostena bukatu duenean), ikurriña josi, pankartak margotu e.a.... nork egiten du?”¹¹

Hirugarren topaketan, ordea, ez zen funtzioen bereizketaren gaia plazaratu, badirudi honela (nahiz eta ziurtatu ezin dezakegun), emakumeen aldarri eta borrokaren bitartez 90. Hamarkadan ezkerreko erakundeetan zenbait hobekuntza eman zirela gai honi dagokionez.

Orduko emakume sindikalistek, eta oro har ezkerreko erakundeetan militatzen zuten emakumezkoek, euren interesak defendatzen ez zirela aipatu zuten, aldarrikapen feministak bigarren maila baten zokoratzen zirelarik betiere. Honela zioten Lanbroako

¹¹ EMK eta LKI-ko Emakumeak, Emakumearen zapalkuntza eta militanzen doblea, Leioa, Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak, 1977, 75.or.

kideek I. Topaketetan: “partiduetan sartzeak gure interesen alienazio bat suposatzen du, langilegoaren askatasunaren ikuspegi orokorrean”¹².

Honen eraginez, militantzia bikoitzaren gaiak pixu handia izan zuen lehenengo eta bigarren topaketetan, 70 eta 80. hamarkadetan zehar bizirik egongo den eztabaida izan zelarik. Ondorengo galderak sortu zitzaizkien: talde feminista autonomoetan biltzeko beharra al zeukaten? Eta hala balitz, bi arloak bateratuz ala ez?

Euskal Emakumeak Borrokan taldeko Edurne Lopez kideak, esaterako, ez zen militantzia bikoitzaren alde azaldu. Bere iritziz, militantzia eredu horrek ezker erakundeek feminismoarekiko duten ardura kanporatzea zekarren: “Militantzi bikoitz honek berak (zenbait emakume horretara behartuak baitira) ezker partiduen konpromiso eza salatzen du emakumeen zapalkuntza eta explotazio arazo larriaren aurrean”¹³

Bizkaiko Emakume Asanbladako kideek, euren aldetik, militantzia bikoitzaren aldeko aldarria egin zuten: “Behar genuen beste emakumeekin biltzea, gure lana hobeto orientatzeko, ideiak biltzeko, gure egiten genuena elkartzeko (...). Behar genuen definitiboki, bere askatasunagaitik burrukatzen duten emakume guztiekin, garatzeko ere gure arteko elkartasuna eta guregan konfidantza hartzea”¹⁴.

EMK eta LKIko kideek zera gehitu zuten militantzia bikoitzaren alde: “Emakumeen mugimendu autonomoa, geuk jarritako helbururekin bazterturik eta ahazturik izanen ez garela garantia bakarra dugu”¹⁵.

Hirugarren topaketetan, aldiz, militantzia ereduaren gaia bigarren maila batean geratu zen. Nabarmenezkoa da, 80. hamarkadatik aurrera “emakume talde” edo “genero arloak” sortuz joan zirela erakunde sindikal ezberdinetan, lan munduan generoak dakartzan zapalkuntzak jorratzeko asmoz, eta urteetan zehar generoari dagokionez izandako gabeziari buelta emateko helburuarekin. Honen fruitu eta adibide da, Euskadiko III. Ihardunaldi Feministan, CCOO, ESK-CUIS, LAB eta STEE-EILAS

¹² Lambroa, Militantzi bikoitza, Leioa, Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak, 1977, 63.or.

¹³ Edurne Lopez – Euskal emakumeak Borrokan taldea, Ezker partidu politiko eta emakumeen arazoa. Klase borroka eta feminismoa, Leioa, Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak, 1977, 65.or.

¹⁴ Bizkaiko Emakume Asanblada, Esperientzia sindikal eta feminista bat, Leioa, Euskadiko II Topaketa Feministak, 1984, 4. or.

¹⁵ EMK eta LKI-ko Emakumeak, Emakumearen zapalkuntza eta militantzi doblea, Leioa, Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak, 1977, 75.or.

sindikatuak modu bateratuan egindako ponentzia, lan munduan emakumeek bizi zuten egoerari buruzkoa: Situación laboral de la mujer en Euskadi y las acciones positivas.

90. hamarkadan, borroka zein mugimendu feministak izan beharreko diskurtso eta norabideen inguruko eztabaida ireki zen, mota honetako galderak sortu zirelarik: nahikoa al da lan arloan gizon eta emakumeen arteko eskubide eta baldintza berdintasuna aldarrikatzea? Ala zapalkuntzaren erroa jo behar dugu eta egiturazko eraldaketa baten alde borrokatu?

Ildo honetatik, ESK-CUIS sindikatuko emakume feministek zenbait jokaera sindikal kritikatu zituzten III. Topaketa feministetan. Alde batetik, uste zuten sindikalgintzatik emakumeen lan egiteko eskubidea aldarrikatzeak soilik ez zuela eraldaketa feministarrik ekarriko, eurek zioten moduan, “lanpostuak emakumeentzat” delako konsigna, hutsunez beteriko aldarrikapena zen. Izan ere, sindikalgintzak historikoki aldarrikatu izan duen “enplegua guztiontzat” baieztapena ere ezinezkotzat hartzen zuten emakume sindikalista hauek, eta guzti honen inguruan hausnartzeko beharra azaldu zuten:

Para nosotras, esa perspectiva de pleno empleo, tan largamente perseguida por el sindicalismo no resulta muy convincente (...), como tampoco nos resulta en sí misma deseable, al menos si por tal se entiende el crecimiento de la producción y la riqueza en los términos en que hoy se manifiesta: un desarrollo destructor de la naturaleza, generador de una jerarquía despiadada de triunfadores y perdedoras/perdedores y propagador de un modo de vida dependiente de la acumulación obsesiva de bienes de consumo individual¹⁶.

Honela, beraz, emakumeen lan munduratzeari gain, emakume sindikalista hauek sistema bera jarri nahi zuten auzitan, baita sakoneko eraldaketa bat aldarrikatu ere. Modu berean, mugimendu feministak lan munduaren logika kapitalistaren erroetara jo behar zuela adierazi zuten, eta gizon eta emakumeen arteko baldintza parekidetasuna aldarrikatzeaz haratago joan. Besteak beste, lanaren kulturaren inguruko hausnarketa bultzatu nahi zuten: zer produzitzen den, zertarako edota norentzako, zer onura edo kalte eragiten diren, eta abar.

¹⁶ Arantza, Bego, Eguzkiñe, Marian, Begoña, M^{re} Carmen eta Marisa – Mujeres de ESK-CUIS (1994 Abendua, 9), El poder masculino en el mundo laboral, Egin, 7.or

Aurreko galdera eta hausnarketa guztiek ez dute gaurkotasunik galdu. Egun, eztabaida hauek ere bizirik dira, eta geroz eta gehiago dira feminismoa eta sindikalgintzaren inguruan plazaraturiko hausnarketa eta ikerketak.

Feminismoa sindikatuetan, gaur egun.

EAEko sindikatu nagusietako emakume ordezkari kopuruari erreparatzen badiogu, oraindik ere zifra desorekatuak aterako zaizkigula ikusiko dugu, hona hemen datuak:

2. Taula: Sindikatu nagusietako idazkaritza nagusiak eta batzorde eragileak sexuaren arabera. 2015-2016.

	Idazkari Nagusia		Batzorde betearazleak				Guztira
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak		Gizonak		
			Abs.	%	Abs.	%	
CCOO	0	1	10	41,7	14	58,3	24
ELA	0	1	4	33,3	8	66,6	12
LAB	1	0	7	53,8	6	46,2	13
UGT	0	1	3	50,0	3	50,0	6
Guztira	1	3	21	40,4	31	59,6	52

Iturria: Emakunde¹⁷

Silvia Pirisen (2015) arabera, feminismoak bigarren mailako borroka izaten jarraitzen du honelako mugimenduetan, lehentasunetatik baztertuta delarik. Modu berean, feminismoa “emakumeen” arazo bezala kontsideratua izaten da oraindik ere, gai honekiko erakundeek duten inplikazioa emakumeen esku uzten delarik maiz. Problematikaren baztertze hau, ordea, ez da ageriko moduan egiten, izan ere politikoki egokia da gai hau kontuan izatea, betiere modu azalekoan landuz ordea.

Era berean, honelako erakundeetan sindikalgintza egiteko eta ulertzeko modua androzentrikoa jarraitzen du izaten, eta dinamika sexistak erreproduzitu egiten dira. Teresa Torns eta Carolina Reciorenen arabera (2017) hauek dira emakumeek sindikatuetan modu parekidean parte-hartzeko aurkitzen dituzten zailtasun nagusiak:

- Aldarrikapen feministak bigarren maila batean kokatzea.

¹⁷ Iturria: Arrillaga, Isabel; Olaizola, Begoña eta Rezola, Leire (2017ko martxoa). Zifrak 2016. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea, 118.or.

- Militantzia eredu androzentrikoa: “24 orduz militantea” ereduaren gorespena da, zeinak bizitza pertsonala, militantea, enplegua eta lan erreproduktiboaren arteko kontziliazioa ekiditen duen. Gizonen kasuan, aitzitik, absentismo hori onartu ezean, goretse egiten da.
- Kultura sindikalaren irudi sinbolikoa: industriako langilearen irudia (gizon zuria, heldua eta familia-burua) gailentzen da oraindik ere. Honek zenbait kolektibo identifikatua ez sentitzea dakar, horien artean emakumeak.
- Prekarietatea: Fenomeno honen feminizazioa bizitzen ari gara gaur egun, eta lan baldintza ezegonkor eta kaxkarragoek emakumeak sindikalgintzan aritzea zailtzen du era nabarmenean.
- Sindikatuetako gizonen erresistentziak: oraindik ere feminismoa ideologikoki zein eguneroko praktiketan integratzeko garaian erresistentziak azaleratzen dira. Fenomeno hau argi antzeman daiteke egungo negoziazio kolektiboan aukera-berdintasunak duen presentzia urrian.

Ane Larrinaga eta Mila Amurriok (2017) honakoa gehitu dute feminismoa ezkerreko erakundeetan txertatzeko gizonen dituzten erresistentzien inguruan: sexu-genero arauak pertsonen inkontzientean eta harreman sozialetan bete-betean txertaturik daude, jendartearen ezaugarrietan eta kulturaren erroan txertaturik dagoen sistema izanik generoarena. Modu honetan, feminismoak norbere burua eta norbere botere-harremanak, zapalkuntzak eta pribilegioak aztertzea dakar, “pertsonala politikoa da” printzipio feministari men eginez. Jakina denez, pribilegiotik gisa identifikatzea eta horiei uko egitea, ez da lan erraza, sindikalgintzan diharduten gizonen artean bada ere.

Egoera hau izanik, azken urteetan, ordea, sindikalgintzaren baitan emakumeen presentzia areagotuz doa. Hilabete gutxitan, gainera kutsu feminista duten hainbat borroka azaleratu egin dira Espainiar Estatuan zein Hego Euskal Herrian, horren eredu ditugu Bizkaiko Erresidentzietako borroka, Gipuzkoako Administrazio Publikoko garbitzaileak, edota “Las Kellys” kolektiboa.

Prozesu feministetaz hitz egiten hasiak dira sindikatuen baitan, borroka sindikal ezberdinak ahalduz feminisarekin lotuz, alegia. Posible al da, ahalduz feminista prozesuak aurrera eramatea tradizio sexista eta androzentrikoa duen mundu sindikalaren baitan?

1.4. Ahalduntze feminista

Ahalduntzea, mugimendu feministaren baitan sarri erabiltzen den termino bat da, eta azken urteetan izaten ari den zabalkuntzaren eraginez, beste zenbait kolektiboren ahotan ere entzuten hasi garen adiera dugu honakoa.

Ahalduntzea- ingelesez “empowerment” eta gazteleraz “empoderamiento”- boterearekin zerikusi zuzena duen terminoa dugu. Boterearen kontua, aitzitik, modu negatiboan interpretatua izan da zenbaitetan, botere goren eta bakar baten forman ulertua izan delarik alde batetik, eta zapalkuntzarekin lotua izan delako, bestetik. Sarritan instituzio eta gobernuekin erlazionatua izan da, boterea arlo horretara mugatuko balitz bezala.

Sindikatuak dagokienez, bestalde, esan genezake sindikatuen helburu nagusienetako bat langileria boteretzea edo ahalduntzea dela, klase arteko botere harremanak orekatzeko helburuarekin. Aitzitik, sindikatu mistoen estrukturak, dinamikak eta kultura politikoak androzentrikoak izaten jarraitzen dute, sexismoa eta horrek dakartzan botere harremanak erreproduzitzen direlarik horien baitan.

Hausnarketa honetatik sortzen da esku artean dugun lan honen galdera nagusia: posible al da ahalduntze feminista prozesuak gauzatzea erakunde sindikal mistoetan?

Ahalduntze feministaren jatorria¹⁸

Zenbait adituk, ahalduntze terminoaren jatorria XX.mende erdialdean kokatzen dute, Estatu Batuetan. Garai hartan, kolektibo afroamerikarra eskubide zibilen aldeko borrokan murgildua zebilen, eta euren estrategia nagusietako bat, pertsona beltzen boterearen bilaketan eta goraipamenean oinarriturik zegoen. Mugimendu honek, beraz, komunitate beltzak bere zapalkuntza eta kapazidateen auto-kontzientzia hartzea bilatzen zuen, modu honetan pertsona beltzak maila politikoan aktibatu eta antolatzeke.

Maila teorikoagoan, Gramsci eta Foucaulten planteamenduetan ahalduntzearen oinarriak aurki ditzakegu, nahiz eta ahalduntze hitza bera ez duten erabiltzen horretarako. Autore hauek zapalduen kontzientziazioa, antolakuntza eta mobilizazio politikoari buruz mintzo ziren euren obretan. Foucaultek, 1992. urtean egindako hausnarketa batean, dominazio botere bakar bat ez dagoela defendatu zuen eta “Botereak” berba plurala erabiltzeko aldarria plazaratu zuen. Izan ere, boterea jendartearen geruza guztietan egon

¹⁸ Atal hau Clara Murguialday (2013) eta Magdalena León (1997)-en lanetan oinarritua dago.

daitekela zioen, maila personal eta txikienetik, maila estruktural eta instituzionalen etaraino. Gramscik, bere aldetik, hiritargoak politikan parte hartu behar zuela adierazi zuen bere gartzelako idatzietan, jendarte parekideago bat sortzeko bidean. Gramsciren planteamenduak oihartzun handia izan zuen 70. eta 80. hamarkaden inguruan, gizarte zientzietan zein mugimendu sozialetan.

Gramscik zein Foucaultek, aitzitik, boterearen inguruko hausnarketa hauek egiterakoan ez zuten generoa modu zuzenean landu. Noiz elkartu ziren, bada, ahalduntze eta feminismo terminoak?

70. hamarkadatik aurrera, Latinoamerikan “Educación Popular” izeneko programak eraman ziren aurrera. Programa hauek Paulo Freireren teoria pedagogikoan oinarrituta zeuden. “Educación Popular” delakoaren onuradunak Latinoamerikako herritar txirotuak ziren, eta hauen alfabetatzea zen ekintzaren heburu nagusia. Dena den, helburu honen atzean beste hainbat xede jorratzen ziren. Alfabetizazioaz gain, persona txiroenen kontzientziatzea, antolaketa eta azkenik mobilizazio politikoa eragitea zen programa honen funtsa nagusia. Hezkuntza mota hau, beraz, ez zen pertsonak errealitatera egokitzekeko tresna bat, baizik eta kontzientzia sozial eta politikoa sortzeko erreminta bat.

Nahiz eta sorreran hezkuntza programa honek feminismoarekin lotura zuzena ez izan, haren bilakaeran feminismoarekin izandako hartu-emanak ugariak eta nabarmenak izan ziren. “Educación Popular” delakoa sustatu zuten hainbat feministak, emakumeen ahalduntzea teorizatzeari ekin zioten garai beretsuan, programaren kutsu androzentrikoa azaleratuz. Honen metodologia ere errebisatu egin zuten, sarri emakumeen ikuspuntu eta behar espezifikoak ez baitziren kontuan hartzen. Berrikusketa hau egiteaz haratago, ahalduntze feministaren praktikari ekin zioten, arlo pribatu eta pertsonala politizatuz, maila indibidualetik kolektibora salto egiteko helburuarekin.

Guzti honekin batera, 1987. Urtean Latinoamerika eta Karibeko IV Topaketa Feministak gauzatu ziren, eta bertan ahalduntzea eta botereari buruzko hausnarketa ofiziala plazaratu zen mugimendu feministaren baitan. Honako mitoaren inguruan eztabaidatu egin zen: “feministok ez dugu boterearen gaineko inolako interesik”. Honela, boterearen inguruan hausnartu egin zen, ulertuz ez dela soilik zapalkuntza iturri izatera mugatzen, baizik eta egoera pertsonal eta kolektibo injustuak iraultzeko tresna baliagarria izan daitekeela ere bai. Topaketa hauen bidez, beraz, boteretze edo

ahalduntzearen balioa finkatuta geratu zen mugimendu feministaren baitan, eta gerora munduko beste hamaika txokotan izandako eragina oso nabarmena izan da.

Guzti honekin esan beharra dago ahalduntze kontzeptuaren zabalkunde handi honen ondorioz, gaur egun ideología ezberdinetako zenbait GKE-k, instituzio publikoek zein enpresa munduko pertsonen ahotan ere darabilela “emakumeen ahalduntzea” esaldiak. Maiz, ahalduntzea bere berezko esanahiaz hustu egiten da, despolitizatu egiten delarik, ahalduntze feministak duen potentzialidade eraldatzailea ezkutatu egiten delarik maila indibidualera mugatzen den bitartean.

Ahalduntze prozesu feministak: botere aniztasuna oinarri.

Ahalduntzea ez da egoera estatiko bat, baizik eta prozesu dinamiko bat da, zeina testuinguru politiko, ekonomiko, sozial edota pertsonalaren arabera modu ezberdinean aurrera eramaten den. Ahalduntze prozesuak, gainera, ez dira soilik indibidualki, ezta soilik kolektiboki ematen. Jo Rowandsek (1997) dioen bezala, ahalduntzeak dimentsio indibidual zein kolektiboan eragiten du¹⁹. Izan ere, botere eta ahalmen pertsonalak garatzeaz gain, ahalduntzearen funtsa jendarteko arlo ekonomiko, politiko, juridiko eta soziokulturaletan genero harremanak iraultzeko botere kolektiboan legoke (Charlier eta Caubergs, 2007).

Ahalduntze feministak boterearekin harreman zuzena dauka, boterea hartzea esan nahi duelarik. Botereari, dena den, sarri konnotazio txarra egotzi izan zaio, goitik datorren botere “bakarra”-rekin lotu izan delarik. Zenbait egile feministek, baina, dominazio-sumisio sisteman oinarritutako hau botere mota bat besterik ez dela adierazi dute, “besteen gaineko boterea” izendatua izan delarik (Clara Murguialday, 2013)²⁰.

Boterea, beraz, anitza da. Zenbait feministak, zein Garapenerako Gobernuz Kanpoko hainbat Erakundek, “besteen gaineko boterea”-z gain, beste botere maila batzuk ere sailkatu egin dituzte. Modu honetan, lau mailatan ezberdindu egin dute boterea (Charlier eta Caubergs, 2007 eta Rowands, 1997)²¹:

¹⁹ Jo Rowandsen (1997) teorian gehiago sakontzeko, jo I. eranskinera.

²⁰ Besteen gaineko boterearen inguruan gehiago sakontzeko, jo II. eranskinera.

²¹ Botere mailak izendatzeko terminologia euskaratu egin dut. Itzulpenaren nolakotasuna jakiteko, ikusi III. eranskina.

- Besteen gaineko boterea: Ikusi dugun moduan, dominazio eta sumisio harremanetan oinarrituan nago. Norbaiten gainean erabiltzen den boterea da, eta erresistentziak sor ditzake.
- Barne boterea: Botere maila honek identitatearekin eta indar psikologikoarekin zerikusia dauka. Norberaren bizi egoeran eragiteko eta erabakiak hartzeko ahalmena da.
- Boterea besteekin: Talde jakin baten parte izanik, helburu amankomunak lortzeko xedearekin antolatzeko, negoziatzeko eta borrokatzeko ahalmena da.
- Egiteko boterea: Gauzak egiteko, gauzak egiten jakiteko eta erabakiak hartzeko beharrezko boterea da, besteak beste. Kontzeptu hau bi arlotan bereiz dezakegu. Alde batetik, kapazidade intelektualak genituzke, hau da, jakitea eta egiten jakitea; eta beste aldetik, kapazidade materialak, hau da, baliabide ekonomikoen eskuragarritasun eta kontrol maila.

Beste egile batzuk, sailkapen honi “eraldaketarako boterea” gehitzen diote, hala nola Clara Murguialday-k (2013):

- Eraldaketarako boterea: pertsonak zein kolektiboek euren bizitzak irudikatzen eta eraldatzeko duten gaitasunaz jabetzea esan nahi du eraldaketarako botereak. Honekin batera, eragin politiko kolektiborako ahalmena litzateke, azken batean politikan eta instituzioetan eragiteko gaitasuna, alegia.

Honekin batera, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek zein hainbat instituzio feministak diote, ahalduntze feminista prozesuak ematen direnean, oinarritzko lau aspektu jorratzen direla, hona hemen elementuok (Sophie Charlier eta Lisette Caubergs, 2007):

- Edukitzea (egiteko boterea): botere ekonomikoari dagokio elementu hau, baliabide ekonomikoen eskuragarritasun eta kontrol mailari, hain zuzen ere.
- Jakitea eta egiten jakitea (egiteko boterea): ahalduntzearen aspektu hau egoeraren kontzientziario mailari, formakuntzari, kritikotasunerako gaitasunari eta baita helburuak lortzeko lidergoari eta antolatzen gaitasunari dagokio.
- Nahi izatea (barne boterea): pertsona batek dituen balio eta emozioei dagokio nahi izateak: beldurrak, norberarenganako konfiantza maila, norberak bere

buruaren inguruan duen irudia, norbere identitate eta bizi proiektuaren inguruko irudi eta kontzientzia, eta abar. Indar psikologikoarekin lotua dago.

- Eragiteko gaitasuna²² (barne boterea, besteekin boterea): Erabakiak hartzeko aukera edo gaitasuna izateari dagokio ahalduntzearen aspektu hau. Bi mailatan banatu dezakegu:
 - Maila indibiduala: erabakiguneetan parte hartzeko eta horietan eragiteko gaitasuna, norbere hitza kontuan hartua delarik. Modu berean, taldearen bozeramaileengan eragina eta kontrola izateko gaitasuna da.
 - Maila kolektiboa: taldekideen izenean erabakiak hartzeko gaitasuna da, lider izateko gaitasuna.

Langile borrokatik, ahalduntze feministara eta interes praktikoetatik, estrategikoetara

Erakunde sindikalen subjektu eraldatzaile nagusia langile klasea da, horrek dakarren aniztasunarekin. Esan genezake, sindikatuen xede nagusietako bat langileria ahalduntzea dela, lan eta bizi baldintzak hobetzeko zein jendarte bidezkoago bat erdiesteko helburuarekin. Horretarako, ahalduntze feministan egiten den moduan, ekintza sindikalaren bidez norbanakoaren egoeraren kontzientziazioa indartu egiten da, ondoren maila kolektiboan ekin eta egoeraren eraldaketa ahalbidetzeko.

Sindikatuetan, ordea, - ezkerreko erakunde misto gehienetan bezala – ez da emakume langileen ahalduntzean fokoa jartzen, gatazkak termino materialetan eta klasea erdigunean jarriz irakurtzen direlarik, abiapuntuan behintzat.

Deigarria da, ordea, azken hilabeteetan Hego Euskal Herriko zein Estatuako zenbait txokotan kutsu feminista argia hartu duten zenbait borroka sindikal aurrera eraman izana, sektore feminizatueta betiere. Horren adibide dugu Bizkaiko Erresidentzietako Langileen Borroka. Prozesu hauetan zehar, sinbologia feminista garatuz joan da, aldarrikapen eta esloganak nabarmenki feministak bilakatu direlarik, eta bozeramaileen diskurtsoak ere feminismoz bete dira denborarekin. Nola ematen da bilakaera hau?

Maxime Molyneux (1985) soziologoak, emakumeen interes praktikoak eta estrategikoak ezberdintzen ditu:

²² Ahalduntzearen aspektu honek “boterea” izendapena du atal gauzatzeko oinarri hartu dudan Gida Metodologikoan (Sophie Charlier eta Lisette Caubergs, 2007), baina terminoa lan honetarako egokitzeko asmoz “eragiteko gaitasuna” izendatu dut.

- Interes praktikoak, emakumeek euren bizitzetan dituzten oinarrizko behar materialekin lotuta daude. Behar hauek, gainera, emakumeek betetzen duten genero rolaekin lotuta egon daitezke maiz; esaterako familia aurrera eramateko behar praktikoaren defentsarekin.
- Interes estrategikoak, emakumeek euren zapalkuntza egoeraren kontzientzia hartzean sortzen diren interesak dira, dominazio eta botere harremanak iraultzea oinarri dutenak.

Sarritan, interes estrategikoak behar praktikoaren defentsa aktibatzearen bidez lortzen dira. Beste hitz batzuetan: hasiera batean oinarrizko behar praktiko eta materialen aldarrikapena zena, genero botere harremanak kolokan jartzen dituen borroka estrategiko bilakatu daiteke.

Bizkaiko Erresidentzietako Borroka, behar materialetatik sorturiko gatazka izan da. Lan honen bidez aztertuko dugu, beraz, ea hasierako interes praktikoak estrategiko bilakatu diren ahalduntze feministaren bitartez.

Izan ere, esku artean dugun lan honen hipotesi nagusiaren arabera, bi urte iraun dituen borroka honetan, euren lan-baldintzak hobetzeaz gain, langile eta genero kondizioaz jabetu egin dira parte hartzaileak (*norbere boterea*), kontzientziazio hau modu kolektiboan ahalbidetu delarik (*boterea besteekin*), eta azkenik egoeraren eraldaketa eragin dutelarik (*eraldaketarako boterea*).

2. BIZKAIKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN: GREBALARIEN AHOTSAK

2.1. Metodología: Ahalduzte feminista neurtzea

Atal honen bidez, Bizkaiko Erresidentzietako borroka aztertuko dugu, grebalarien esperientzia hartuz abiapuntu gisa. Testigantzak jasotzeko, sakoneko elkarrizketak gauzatu ditut zenbait grebalarirekin, baita eztabaida talde bat egin ere. Eztabaida taldea, lau pertsonaz osatutakoa izan da, eta sakoneko elkarrizketak beste lau pertsoneri egin dizkiet, binakako elkarrizketa semi-egituratuen bidez. Hautatutako elkarrizketatuen profilari dagokionez, hiru eskualdetako grebalarien ahotsak jaso dira ikerlan honetan: Bilbo, Eskumaldea eta Ezkerraldeako egoitzetako langileenak, hain zuzen ere. Zortzi grebalarietatik sei, ordezkari sindikalak dira, beste bat liberatu sindikala da, eta azkenik, ordezkaria ez den baina afiliatua den emakume gazte baten profila dugu. Elkarrizketatu guztiak ELA sindikatuko partaide dira modu batean edo bestean (ordezkaritza, liberazioa edo afiliazioa), erakunde honetara atxikitutako langileak izan baitira greba aurrera eraman dutenak. IV. Eranskinean dugun taularen bidez, gauzatutako elkarrizketen data eta iraupena ageri da, baita elkarrizketatuak sailkatu eta izendatu diren modua ere, atal enpirikoan ageriko den moduan.

Elkarrizketatuen errelatoaren bitartez, greban zehar ustez bizitako ahalduzte feminista sistematizatzen eta aztertzen ahaleginduko gara, ahalduzte prozesua hiru momentou kronologikotan ezberdinduz: “Abiapuntua”, greba baino lehenagoko egoera, alegia, “Greba”, greban zehar izandako prozesua, eta “Emaitzak”, greba ondoren ateratako ondorioak, hain zuzen ere.

Abiapuntuan zein greba garaiko egoera aztertzeko, hiru aspektu izango ditut kontuan: baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide soziopolitikoak. Prozesuaren emaitzak aztertu ahal izateko, aitzitik, aurretik aipaturiko ahalduzte feminista prozesuetan ematen diren lau aspektuen (Sophie Charlier eta Lisette Caubergs, 2007) analisia gauzatuko da: Edukitzea, jakitea eta egiten jakitea, nahi izatea eta eragiteko gaitasuna.

Adierazle hauek gauzatzeko, “El proceso de empoderamiento de las mujeres” gida metodologikoa (Sophie Charlier eta Lisette Caubergs, 2007) hartu dut oinarri, eta bertan ezarritako aldagaiak testuingurura moldatu eta egokitu egin ditut. Izan ere, gida

metodologiakoan ezartzen den moduan, ez dago formula bakarra ahalduntzea neurtzeko edota prozesuak sistematizatzeko, eta adierazleak egokitu egin behar dira testuinguru bakoitzera.

Behean ikusiko den moduan, adierazle hauen edukia bi mailatan ageri da: indibiduala eta kolektiboa. Izan ere, ahalduntze prozesuak bi dimentsio horietan ematen dira, sarri dimentsioak nahastu egiten direlarik era berean.

Guzti honekin, hona hemen, Bizkaiko Erresidentzien Borrokan emandako ahalduntze prozesua sistematizatzeko adierazleen eskema eta horien edukiak:

A. Abiapuntua

A.1. Baliabide ekonomikoak: Norberaren lan eta bizi baldintzak (indibiduala).
Lan baldintzak (kolektiboa).

A.2. Giza baliabideak: Norberaren egoera emozionala (indibiduala).
Kontzientzia maila prekaritatearekiko eta feminismoarekiko (indibiduala eta kolektiboa).

A.3. Baliabide soziopolitikoak: Norbera sindikatu baten parte izatea, afiliazioa (indibiduala). Sindikatuen inplikazioa hasiera batean eta zentroetako langileen antolakuntza maila (kolektiboa eta kanpokoak).

B. Greba

B.1. Baliabide ekonomikoak: Egoera ekonomiko pertsonala (indibiduala), erresistentzia kutxa edo mekanismo solidarioen existentzia (kolektiboa).

B.2. Giza baliabideak: grebalarien egoera emozionala (indibiduala), zaintza eta etxeko lanak aurrera eramateko sare pribatua (indibiduala) eta estrategia kolektiboak (kolektiboa).

B.3. Baliabide soziopolitikoak: Antolaketa eta egituran parte hartzea (indibiduala). Sareak izatea eta babesa jasotzea beste eragileengandik (kolektiboa)

D. Grebaren emaitzak

D.1. Edukitzea: Lorturiko lan baldintzak (indibiduala eta kolektiboa).

D.2. Jakitea eta egiten jakitea: Garatutako kontzientzia maila (indibiduala eta kolektiboa). Borrokaren antolakuntzarekiko gaitasunak eta ezagutza garatzea (indibiduala eta kolektiboa).

D.3. Nahi izatea: Autopertzepzioa, motibazioa eta egoera emozionala (indibiduala). Talde sena indartzea (kolektiboa).

D.4. Eragiteko gaitasuna: Norbere ahotsa balioan jartzeko eta iritzi eta nahiak gainean jartzeko gaitasuna (indibiduala). Jendartearen estruktura maila ezberdinetan parte hartzeko eta eragiteko gaitasuna (kolektiboa).

Ondoren, beraz, adierazle eta atal hauek kontuan harturik elkarriketen analisiari ekingo diogu, abiapuntuko egoera aztertuz hasiko garelarik.

2.2. Grebalarien lekukotza

A. Abiapuntuko egoera

A.1. Baliabide ekonomikoak

Hasiera batean, elkarriketatuen hitzetan, gatazka lan baldintza materialak hobetzeko helburuarekin jarri zen martxan, bosgarren hitzarmena lortzeko, alegia. Euren hastapenetako egoeraz hausnartzerako garaian, grebalaria zaharren egoitzen azpikontratazio sistemaren inguruan mintzo dira:

En este sector nunca se ha puesto fácil. Fue un sector que empezó a crecer como setas. Te hablo del 98 que había muy pocas residencias. Se hizo el mamotreto de Aspaldiko. Las empresas empezaron a ver que aquí la diputación daba una cantidad de dinero por anciano mucho más cuantiosa que en el resto del estado y que eso era un negocio. Entonces empezaron a salir residencias como setas. (...) Porque al ser un sector tan bien pagado por parte de las instituciones aunque tu tengas unas pocas plazas en una residencia pequeña eso ya te da beneficios, porque si tú tienes 15-20 ancianos los ingresos que te van a entrar son cuantiosísimos para una mano de obra que entonces era casi gratuita y con muy poco personal, que para 20 personas casi no necesitas personal, por lo cual los beneficios eran inmensos. Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Modu berean, azpikontratazioaren ereduak sektore publiko eta pribatuan lan egiten duten beharginen arteko lan baldintza desorekatua mahai gainean jarri zuten:

Haciendo el mismo trabajo que en entidades públicas no merecíamos estar por debajo. Haciendo el mismo trabajo, siendo el mismo personal, atendiendo a las mismas personas, encima a ancianos que ellos derivan y que en sus empresas que pertenecen a diputación se cobra mucho más, sobre un 40% un 60 más por cien y se tiene el doble de personal nosotras no entendíamos porqué teníamos que estar denigradas de esa manera. Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Hala ere, behin gatazka jendarteratuta, langileen lan baldintzen dimentsioaz haratago jo zuen diskurtsoak, eta borroka beste kutsu bat hartu zuen: beharginen baldintzez gain, erabiltzaileen egoera jarri zen eztabaidaren erdigunean. Honela deskribatu du eskumaldeako grebalaria honek prozesua:

Principalmente el conflicto empezó para conseguir un convenio (...) mejorando el que teníamos. Lo que pasa que estás en la calle, (...) y empiezas a reivindicar otra serie de cosas, ya no estás pidiendo un sueldo, etc. Ya estás pidiendo calidad para el residente (...) La gente nos empieza a escuchar y a tomar conciencia del problema que existe en las residencias. Ahí la lucha empieza a tener una connotación social. Entonces empezamos a plantear el tema de los ratios, personal insuficiente, que no llegamos.... Entonces empezamos a molestar y la gente nos empieza a apoyar. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Modu honetan, ratioen arazoa jarri zen mahai gainean. Izan ere, ratioak hain dira handiak non egoitzetako langileak erabiltzaileak modu egokian zaintzeko denbora ez izateaz kexu diren:

Trabajamos con personas, no con objetos. Y a veces con la presión que te meten, te da la impresión que para ellos está claro que somos números nosotras y son números ellos. Y eso es muy triste porque vale es un negocio, pero si tienes que ganar 20 no tienes que ganar 50. A costa de ellos no tienes que multiplicar los beneficios (...) Estas tratando con personas que se merecen un tiempo, que les trates con dignidad. Que son lo últimos años de su vida, entonces piensa un poquitín como te gustaría que te trataran a ti. (...) Con respeto, con educación y dedicándome el tiempo que yo necesite. Eskumaldeako ordezkaria 1.

Honekin batera, grebalariek maiz ezagutzen ez den datu bat eman zuten: Erresidentzien sektorean, ez dira soilik adineko pertsonak tratatzen. Elkarrizketatuek dioten bezala, modu batean edo bestean gizarte bazterketa egoeran dauden profil ezberdinetako pertsonen ere arreta eskaintzen diete, hala nola drogomenpekotasun arazoak dituzten

pertsoneri, ezgaitasunak pairatzen dituzten jendeari, edota gaixotasun psikiatrikoak dituzten pertsoneri, besteak beste. Hauek, gainera, adin guztietako pertsonak izaten dira, gazte zein heldu:

Se trabaja con todo tipo de personas...es decir, tendemos a pensar que las residencias...son de gente mayor. ¡Que va! Entra gente de 80, pero entra gente de 50, y de 40, ¡y de menos! La convivencia entre ellos es muy diferente. Y a tí, como trabajadora...tiene que ser un trato diferente, entre ellos, el abanico de edad es tan variopinto, que tu manera de actuar no es lo mismo. No es lo mismo actuar con una persona de 70-80 años, que con una persona de 40 o de 50, que puedes ser tú.
Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Por accidentes, enfermedades degenerativas...Ezkerraldeako ordezkaria 2.

Las empresas que tiene concertadas las sociosanitarias, por ejemplo en el caso de nuestra empresa, Aspaldiko...te viene gente con escicofrenia por drogas, te viene gente de la calle...son plazas diferentes a tratar. Gente que te viene con metadona...entonces esa gente ¡no puede estar en un centro residencial como un totum revolutum!
Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Porque en vez de crear otro tipo de centro, Lo que han encontrado aquí es un agujero donde meter a ese tipo de gente. Ezkerraldeako ordezkaria 4.

Egoera honek lan karga gehigarria suposatzen du erresidentzietako langileentzat, orokorrean ez baitaude espezializaturik profil aniztasun hain zabala barnebiltzen duen erabiltzaile taldeari arreta egokia emateko. Gai honen inguruan ere honako hausnarketa plazaratu genezake, erabiltzaileen ikuspuntutik: gizarte bazterketa pairatzen duen jende profil hain ezberdinak zentru berean tratatzeak zentzurik al du? Honetaz gain, behar moduko arreta jasotzen al dute erabiltzaileok?

A.2. Giza baliabideak

Zahar egoitzetako langilek hasiera batean bizi zuten prekarietate egoeraz zuten kontzientziazio mailaren inguruan galdetzerakoan, zenbait erresidentzietan bosgarren hitzarmenaren gatazka baino lehenago egindako mugimenduak aipatu zituzten, beraz kontzientziazioaren esnatze hori aurreko urteetan kokatzen dute:

Es que trabajo previo viene de muchos años atrás. Ezkerraldeako ordezkaria 2.

En el 2000-2001 ya empezábamos a movernos, ya había conversaciones para fomentar un convenio provincial pero aquello no salía.....se empezaba a ver que no queríamos el estatal. Ya empezábamos a movernos, en el 2000-2001-2002 empezó ese caldo de cultivo necesario para...no queríamos eso, queríamos empezar a trabajar desde aquí. Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Hasiera batean lankideen artean zegoen kontzientziazio feminista mailaren inguruan galdetuta, modu ezberdinetan erantzun zuten elkarrizketatuek. Izan ere, nahiz eta batzuk hasiera batetik beren burua feministatzat izan, beste batzuk ez dute feminismoa irizpide izan, borroka mugitu duena arrazoi materialak izan direla azpimarratuz:

Muchas de las que estábamos en la calle no porque fuera una lucha feminista eh? Por la situación que vivimos todos los días, estábamos hartas y el lado feminista se ha visto mas desde fuera que nosotras mismas desde dentro eh... Ezkerraldeako ordezkaria 4.

Yo por ejemplo estoy muy concienciada con la lucha feminista entonces ya esta lucha yo desde el principio sabía y siempre lo afirmé además que era una lucha feminista y que era una oportunidad para dar visibilidad a nuestros problemas. Mucha gente a veces es feminista y no lo sabe no? Porque algunas dicen Yo no soy feminista y luego hablas con ella y...hay pues fijate pues si lo soy! Muchas son feministas y no lo saben. Yo si, estoy muy concienciada con la lucha feminista. Ezkerraldeako ordezkaria 2.

A.3. Baliabide soziopolitikoak

Abiapuntuan zentruetan zegoen sindikalizazio mailaz galdetzerakoan, egoera ezberdinak aurkitu ditugu. Lantoki batzuetan jende gehiago zegoen afiliatuta sindikatuetera, beste batzuetan gutxiago. Ondorengo elkarrizketatua, 24 urteko langilea da, eta afiliatzeko erabakiaren inguruan galdetu natzaio:

Si, estoy afiliada, cuando empezó la huelga me afilié. Antes no estaba afiliada. Fue mi primer trabajo. Empecé de prácticas y me cogieron para las 2 horas. Luego ya cuando me cogieron fija me afilié. Vi el conflicto, gracias a mis compañeras estuve yo fija, porque lucharon para que estuviera el 80% de la plantilla fija. Bilboko afiliatua 1.

Badirudi, beraz, elkarrizketatuaren lantokian lan sindikala egin izana eta horiek fruitu eman izana, afiliatzeko pausua ematea eragin duela gaztearengan.

Afiliazioaz haratago, elkarrizketatu ditudan grebalarien lan zentru guztietan hauteskunde sindikalak egin izan dira, eta ondorioz delegatuak dituzte. Hala ere,

sindikatuarekin harremanak izateagatik pairatu izan dituzten egoerak azaleratu dituzte elkarrizketatuek:

Los comienzos no fueron fáciles porque en nuestro caso en la empresa en la que trabajamos nos puso muchas dificultades, al sindicato le llamaba “el mierdal”, en un principio las delegadas todas que estuvimos desde el principio fueron dimitiendo una por una, me quedé yo sola, a mí se me amenazaba con el despido para que dejara el mierdal, sufrí un acoso brutal por parte de la empresa del cual tengo secuelas...y la verdad es que fue tremendamente difícil, pero bueno aguantando el tirón pues poco a poco, luego se fueron incorporando otras personas, y bueno aquí seguimos. (...) Ser delegada de ELA no es fácil, porque cuando llegan las elecciones (...) en las últimas elecciones había un abanico de gente que estaba haciendo sustituciones 17 o 18 personas posibles votantes de ELA y los echó a la calle. Nunca lo hemos tenido fácil.
Ezkerraldeako ordezkaria 2.

Ikus dezakegu honela, nola sindikalki antolatzeke hautua hartzen duten pertsonen traba handiak izan ohi dituzten euren funtzioa aurrera eramateko, ahalduntzearen aurkako²³ efektua izan dezakelarik egoera honek, emozionalki suposatzen duen higaduragatik.

B. Greba

B.1. Baliabide ekonomikoak

Zaharren egoitzetako langileen kolektiboa, oro har, langileria prekariora da, euren lan baldintzek egoera hori ahalbidetzen dutelarik. Hau honela izanda, elkarrizketatuek greba egin ahal izateko “Erresistentzia Kutxa” ezinbestekoa izan dela diote; ELA Sindikatuak duen greba kasuetarako mekanismo solidarioa, alegia:

Por supuesto que la caja de resistencia es importantísima. Yo misma, sin esa ayuda no habría podido estar los días que he estado, eso lo tengo clarísimo. Eskumaldeako ordezkaria 1.

Erresistentzia kutxaz gain, greban zehar aurrera egin ahal izateko sindikatuak eskainitako beste zenbait baliabide material ere goraipatu dituzte elkarrizketatuek:

(...)Y luego el apoyo y la fuerza de un gran sindicato como ELA, que nos ha estado dando todas las herramientas que han sido necesarias, desde todos los elementos como

²³ Ahalduntzearen aurkako efektua duten eragileak, gartzelerazko “factores desempoderantes” terminoa itzultzeko hautatu dudana da.

pancartas, tener furgonetas pegatinas, chapas, todo un monton de medios que nos han ayudado a socializar, igual que la caja de resistencia...instrumento fundamental para aguantar esto. Bilboko liberatua 2.

B.2. Giza baliabideak

Greban parte hartzeko hautua egiteko erabakiaren inguruan mintzatu gara elkarrizketetan. Ordezkarri sindikala izanda, enpresarien mendekuaren aurrean babes juridikoa gainontzekoena baino handiagoa da. Zentzu honetan, ordezkarri sindikala ez den elkarrizketatuari greba egiteko hautua hartu zuenekoari buruz galdetu natzaio:

Yo tenía miedo de hacer huelga porque me veía sola. Pero justo estábamos dos que nos habían hecho fijas y entonces hablamos. Y entre nosotras dos pues dijimos venga, ¿hacemos? Y las dos cogimos fuerza y como que nos apoyamos una a la otra y fuimos palante. (...) En septiembre fue cuando empezamos a hacer la huelga mi compañera y yo. Bilboko afiliatua 1.

Grebalari honen testigantzatik, aislamendua haustearen garrantzia atera dezakegu, beldurrak gainditzeko eta antolaketara pausu egiteko estrategia gisa.

Grebe dakarten zailtasun agerikoena, lanuzteek eragindako soldata galera dugu, baina errealitatean beste zenbait faktore ere gailentzen dira. Greban egoteak, lanuzteek dirauten bitartean mobilizazio eta ekintza ezberdinetan parte hartzea dakar, hala nola manifestazioetan, kontzentrazioetan edota bileratan parte hartzea. Gatazkaren konponbideari dedikatu beharreko denbora, beraz, asko izaten da. Hirugarren adineko egoitzetan sektorearen gehiengoa emakumez osatua dago, eta jakina denez sexuaren araberako lanaren banaketaren eraginez emakumeengan dago zaintza eta etxeko lanen zama gehiengoa. Honela, greban zehar seme-alaben edota bestelako zaintza lanaren kudeaketa, elkarrizketetan mahai gainean jarri den gaia izan da, egoera horri aurre egiteko estrategia ezberdinak azaleratu direlarik. Hurrengo elkarrizketatuaren iritziz, zenbaitetan greba eta zaintza lanak uztartzeko ezintasuna gogorra izan da:

El primer año y pico a mi hija no la he visto. En aquella época mi marido estaba en el paro y se encargaba de ella. Para mi personalmente ha sido una locura. (...)Mi hija me decía: ama yo no quiero ir a más manifestaciones. Cuando mi marido se puso a trabajar yo me la llevaba porque no es fácil siempre encajarla. O cuano sacaba la carpeta de los servicios mínimos que tenía que organizar me decía mi hija: jo ama, otra

vez? Porque eso significaba que no íbamos a jugar, que no íbamos a estar juntas...y es así. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Seme-alabak manifestazio eta ekintza ezberdinetara eramatea joera orokortua izan da grebalarien artean:

El haber tenido que venir con nuestros hijos a movilizarnos...que nuestros hijos supiesen...pequeños eh, de seis, de cuatro, de ocho... ¡y se sabían los eslogan, como nosotras! (Risas) Agarraban banderas... Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Y los míos siguen cantando en casa (...) estás en casa y de repente oyes: ¡diputación, solución! (Risas) Ezkerraldeako ordezkaria 4.

Gainera, greban zehar zaintza lanak aurrera eramaten parte hartu duen inguruko pertsonen sarearen garrantzia azpimarratu dute zenbait elkarrizketatuk, persona horiek modu aktiboan grebaren parte direla aldarrikatuz:

También quiero decir que nuestra lucha, como mujer, como personas que hemos decidido estar ahí, ha tenido que ser acompañada de toda nuestra gente cercana. O sea, quiero decir, que yo no hubiese podido estar ahí día tras día, independientemente de la hora, mañana o tarde, si alguien de nuestro entorno más cercano no se haría cargo de mis hijos... (...) esos hijos tienen que estar al cuidado de alguien...cuenta con vecinas, amigas, amamas, aitites... quiero decir que ellos también son personas activas en esta huelga. ¿Me entiendes? O sea que nuestra lucha no ha podido ser tan tan tan tan maravillosa sin ellos. Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Greba aurrera eramateko beste zailtasun nagusietako bat, zerbitzu minimoen gehiegizko aplikazio izan dela aipatu dute elkarrizketatuek. Izan ere, hasiera batetik egunez %80an eta gauez %100ean ezarri zituen Foru Aldundiak zerbitzu minimoak. ELA sindikatuak neurri kontrako salaketak jarri zituen arren, greba aurrera joan ahala eguneko zerbitzu minimoak %90 era igo zituen Aldundiak. Modu honetan grebaren eragina nabarmenki baliogabetu zitekeen arren, grebalariek mobilizazioetan jende kopurua mantentzeko egindako esfortzuek beren fruituak eman zituzten, nahiz eta gogorra izan zela aipatzen duten:

Empezó con un 80 y el 100 a la noche, a la noche nunca han podido hacer huelga, porque ya trabajan en el día a día con servicios mínimos y lo llegan a reconocer ellos. A la noche hay 2 trabajadoras, ¡que narices vas a permitir ahí una huelga! (...)diputación solicita, - que además lo solicita diputación, ni siquiera la patronal- nos

lo aumentan al 90 (...) las demás pues, si estoy de mañana voy de tarde, si estoy de tarde...si hemos conseguido esa presencia de número en la calle es porque hemos hecho virguerías y porque nos hemos concienciado de que no podíamos dejar de estar ahí aunque los servicios mínimos fueran malos, pero han sido abusivos completamente. Y los hemos perdido, cada vez que los hemos denunciados, nos han vuelto a dar eh... ese fue un golpe de los más duros, teníamos miedo de que se quedaría invisible.
Bilboko liberatua 2.

Emozionalki greban zehar gorabehera asko izan dituztela adierazi dute elkarrizketatuek, momentu onak eta txarrak. Horretarako, lankideen arteko babes ezinbestekoa izan dela ere aipatu dute:

Hemos llorado, hemos reído, primero con una, luego con otra, yo me enfado con ella, al día siguiente llorando...todo. Ezkerraldeako ordezkaria 3.

Al final esto mina a todo el grupo. Hay discusiones, luego vamos palante, luego volvemos a discutir...es que ha sido un trago...tela eh. Cada una con su capa personal. Mas en el centro de trabajo. Luego hablas con compañeras de otros centros y ves que lo que pasa en tu centro pasa en todos, y en el momento te sirve. Bueno, lo llevas. (...)
Ha habido más terapias de café...si, muchas. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Menos mal que las dos no caíamos a la vez. Cuando caía una la otra le levantaba, y al revés. Eskumaldeako ordezkaria 1.

Zentzu honetan, liberatua dagoen elkarrizketatuak, ordezkari sindikalen lana goraiatu du, kideen animoak eusteko orduan:

Creo que las delegadas hemos tenido un peso importante en tener que mantener a nuestras compañeras arriba cuando ellas se venían abajo, ¿no? Cada vez que acababan las manifestaciones y nos juntábamos los grupos cada una con nuestras compañeras (...), la delegada hace esa labor un poco de, ¡venga chicas, animo! y tal... y el desgaste yo creo que es doble, porque tu también piensas muchas veces...aunque yo he tendio claro en todo el conflicto que lo íbamos a ganar,me estaba pareciendo muy largo (...). Pero que bueno, lo importante era mantener el número y que cada vez serían mas, que la gente no se nos cayese. Bilboko liberatua 2.

B.3. Baliabide soziopolitikoak

Greban zehar elkarrizketatuek negoziazio kolektiboaren prozesuan zehar modu batean edo bestean parte hartu dutela aipatu egin dute. Elkarrizketatuetako batzuek, negoziazio

mahaietan izan dira patronalarekin aurrez aurre, sindikatuko estrukturako kideekin batera, betiere.

Parte hartze mekanismoak ezarri egin dira sindikatuko delegatuen artean: ordezkarien artean txandakatu egin dira ahalik eta persona gehien prozesuaren parte izateko eta esperientzia hau bizitzeko:

Bueno los responsables son los que realmente estaban en contacto con la patronal directamente. Y en todo momento cada contacto que tenían con ellos nos lo comunicaban a nosotras. Pero luego en las mesas negociadoras hasta que se firmo el convenio en las reuniones que ha habido en alguna he estado yo, en otras, otra compañera...nos hemos ido turnando porque queríamos estar todas. Todas no se puede estar, pero bueno todas hemos tomado un poco de contacto con la Patronal para ver lo que se... Y luego hemos tenido nuestras asambleas y en todo momento hemos estado informadísimas. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Beste alde batetik eta elkarrizketatu honek dioen moduan, nahiz eta grebalari guztiak ezin izan diren negoziazio mahaietan egon, prozesuaren parte aktibo izan direla diote, asanblada bidez momentu oro informatuak izan baitira mugimendu bakoitzaz, eta honelako espazioetan eztabaidatu eta hartu direlarik erabakiak:

Cuando ellos tenían alguna reunión luego teníamos una asamblea todas para darnos la información de lo que había salido de ahí, si había salido algo. Eskumaldeako ordezkaria 1.

Continuamente nos estaban explicando lo que pasaba, las delegadas de nuestra residencia nos explicaban, nos decían, o sea... sí nos hemos sentido parte. No estábamos ahí pero si nos sentíamos...porque siempre nos decían lo que pasaba y todo eso, sí. Bilbiko afiliatua 1.

Honelako bileretan parte hartu dutenek, ordea, esperientzia txarra izan dutela diote, patronalaren zein kargu politikoen aldetik mespretxua gailendu delarik. Ondorengo grebalariak honela adierazi zuen bere esperientzia negoziazio mahaiean:

Yo salí bastante desmotivada. Luego sales fuera y con el apoyo de las compañeras dices...¡Me cagüen la leche! Palante y patras ni para coger impulso. A ver pero es que estamos hablando de un sector muy muy vulnerable (...) ¿quién cuida al cuidador? (...) Yo necesito tiempo para atender a esta gente bien. Tu esto lo trasladas a una mesa y tienes delante a unos señores que no te toman en serio. Yo la primera reunión salí como

diciendo: bueno, estos creen que somos cuatro niñas pegando cuatro gritos y que ya nos cansaremos. Yo no se me olvida, llevábamos unos meses de huelga y lo primero que propuso la patronal era un aumento de 3 euros, los 2 horas anuales de trabajo menos anuales, y en el 2017 ya lo volveríamos a hablar...entonces dices jo! (...)Me estás insultando a mi, a los residentes, a los familiares. Asíque la verdad es que mal.
Eskumaldeako ordezkaria 2.

Elkarrizketatuek, gainera, patronal eta kargu politikoek jasotako mespretxu horrek joera sexista handia izan duela salatu dute, honelako adierazpenak egin dituztelarik:

Yo ha habido momentos que, me imagino como todas, que me he sentido totalmente humillada, despreciada, ninguneada, silenciada. Me he sentido... no te puedes ni imaginar. (...) A veces llegaba a casa y decía: ¡dios mío, como puede ser posible que en el siglo XXI todavía ocurran estas cosas! Como decir que para qué queremos ganar más si es el segundo sueldo si ya tenemos el del marido, que a ver qué protestamos porque contentas tendríamos que estar porque tenemos trabajo, que vamos a conseguirlo por “esto” (agarrándose la entrepierna), luego las declaraciones del señor Rementería que parece que el sindicato movía los hilos como si fuéramos tontitas y no supiéramos opinar y saber lo que teníamos que hacer. Ezkerraldeako ordezkaria 2.

Cuando las compañeras nos contaron, a mi algo me reventaba por dentro. O sea, me dices que mi sueldo es el segundo sueldo en casa que total pa que pides tanto. A ver... ¡a ti quién te ha dicho que mi sueldo es el segundo sueldo, a ti qué coño te importa mi vida! (...) Mi trabajo, mi esfuerzo es lo que estamos valorando aquí, no si me mantienen o me dejan de mantener, osea quién eres tu pa decirme que yo tengo que tener un marido pa que me mantenga, ¿de qué vas? ¡Machista de mierda! (...) O: de aquí va a salir el aumento (agarrándose la entrepierna)... ¿de qué vas tío? ¿Porque somos mujeres te comportas así?, ¿a un hombre le dirías eso? Eskumaldeako ordezkaria 1.

Elkarrizketatu dugun liberatu sindikalak negoziazio mahaietan hartu du parte modu aktiboan, eta patronalarengatik datorren mespretxu misoginoa bizi duen lehenengo aldia ez dela izan aipatu du. Honekin batera, “Breadwinner” ereduak patronalaren iruditegian indartsu jarraitzen duela azaleratu du elkarrizketan:

Siempre son ataques sexistas y machistas, que tampoco es este el primer convenio en el que lo vives. Pues sí, te dicen que cobras lo que cobras porque eres el complemento del marido (...). Nos hablan de que no hay hombres en este sector porque no es salario

para un cabeza de familia...me parece que el concepto de "cabeza de familia" está tan obsoleto, o sea...es tan sexista, "cabeza de familia"... Bilboko liberatua, 2.

Jarrera hauek sarri grebalariengan gaizki sentitzea eragiten duten heinean, ahalduntzearen kontrako efektua ekar dezakete, baita aldi berean emakume izanagatik kolektiboak jasaten duen diskriminazio bikoitzaz jabetuarazi ere bai:

Eso es, a un hombre no se lo dicen. Nosotras decimos que somos 90% mujeres. En cualquier empresa que el 90% sean hombres, no nos mangonean. Yo nunca he oído decir a uno de la patronal que se agarre la entepierna y que diga "de aquí va a salir el sueldo para pagarte a ti", a un tío; yo nunca he oído a un tío que le digan tu eres el complemento del sueldo de tu mujer; yo nunca he oído que a un tío se le diga: "eres la marioneta del sindicato", que te manejan como quieren. Yo eso nunca lo he vivido, nunca! Y he vivido con compañeros que han hecho huelgas en sus empresas y nunca he oído eso. ¿Y tengo que tragar porque soy una mujer? Yo no soy el complemento de nadie. Es que es una mentalidad tan machista y despectiva a tope... Yo esos comentarios los llevaba francamente mal. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Hala ere, honelako gutxiespenari buelta eman izan diote sarri grebalariek, borrokarako indarrak areagotu dizkietelarik halako jarrera sexistek:

(...)Pero también nos da fuerza, te sientes mucho más maltratada, o como trabajadora de segunda, que igual te hace más fuerte para decir: estos no van a poder con nosotras... Porque es que no nos tienen en cuenta para nada, es que somos cuidadoras...y yo siempre lo he dicho: esto lo habeis hecho históricamente gratis (...) y "ahora que te pago hija, pues lo poco que te pague... contentita". Entonces yo creo que eso a todas nos ha revuelto. Es un trabajo muy duro para que no esté valorado. Bilboko liberatua 2.

Zentzu honetan, elkarrizketatuek diote beren sektorea feminizatua delako izan dela hain luzea bizi duten greba, 378 egunekoa, hain zuzen ere:

Si, si ha tenido que ver con que seamos mujeres. Pues porque no toman tan en cuenta las mujeres como a los hombres. Bilboko afiliatua 1.

Esque a lo largo de esta huelga, ha habido huelgas...la de amarradores, la de no se qué, la de no se cuál...se han cerrado en breve y nosotras ahí seguíamos. La de altos hornos, todo...todas las que se han abierto mientras estábamos nosotras se han ido cerrando en poco tiempo y, ¡Es que lo nuestro seguía ahí! Ezkerraldeako ordezkaria 4.

Greban zehar gainontzeko eragileengandik jasotako babesaren inguruan mintzatu dira ere elkarrizketatuak, babes horiek prozesuan zehar izandako garrantzia azpimarratuz:

Y luego en la acampada (...) ahí estuvo todo el mundo...grupos de teatro, artistas, pintores, escritores, políticos...fue...imborrable. Ezkerraldeako ordezkaria 2.

Arriaga aurrean egindako akanpadaren adibidea elkarrizketa guztietan atera den oroitzapena izan da:

Se emocionó mucha gente en esa acampada...fue una acampada festiva...pidiendo participación de todos los colectivos, escritores, músicos artistas...y la respuesta fue alucinante (...) hubo gente que salió a hablar y se emocionó. Era un punto ya...no se lo que llevamos ya...muchísimo, ciento y muchos días...entonces ahí gente que ya, después de tanto tiempo ver que tanta gente había acudido dices ¡bueno!... porque haber conseguido que en 378 días no se olvidasen de nosotras...que el conflicto no hubiese quedado ahí de...”si deben estar...” ese yo creo que también un trabajo principal que hemos hecho ha sido socializar lo bien que hemos socializado. Bilboko liberatua 2.

Hala ere, mugimendu feministaren inguruan galdetzerakoan, erantzunak gazi-gozaok izan dira:

Al principio no, luego a medida que fue transcurriendo el tiempo yo creo que fueron conscientes de que no era una reivindicación laboral al uso, sino que la ideología feminista estaba clarísima en esta reivindicación. Entonces tal vez no de la forma que nosotras hubiéramos querido, con más intensidad, pero bueno, hubo momentos en que si han estado. Quizá debían haberse volcado un poco más. Ezkerraldeako ordezkaria 2.

Si este convenio en vez de firmarse en octubre (...) se cierra en junio-julio, los movimientos feministas no hubiesen estado. Ellas después de verano fue cuando estuvieron. Ezkerraldeako ordezkaria 1.

ELAren izenean Bizkaiko Erresidentzietako liberatua denak, mugimendu feministaren babesa lortzeko grebalariak eurengana jo behar izan dutela aipatu du:

Yo al principio lo viví mal. Llevábamos muchos días de huelga y el movimiento feminista no se había acercado en absoluto. Es más, yo participo, voy a “mujeres martxan” que hacían unas jornadas en donosti y yo voy para pedir que se impliquen. Así que yo fui la que se acercó al movimiento feminista. Las cuestioné que eramos mujeres trabajadoras, que el movimiento feminista tenía que estar con nosotras (...), y

que el tema laboral es totalmente un tema que afecta a las mujeres y tenían que estar. Ahí se generó ya una cierta empatía, muchas se sintieron cuestionadas pero también fueron capaces de hacer autocrítica y decir: es verdad. Y a partir de ahí empieza a haber un acercamiento, y feministas que nos empiezan a acompañar y a venir. Ha habido también bastante implicación a veces individual de las feministas, más que colectivos enteros. Feministas a nivel individual que se han implicado. (...) Al final hemos conseguido que participaran más pero nos lo hemos trabajado eh? Bilboko liberatua 2.

Zentzu honetan, mugimendu feminista sindikalgintzara gehiago hurbildu behar dela aldarrikatzen du liberatuak, feminismoak sarri darabilen diskurtso “elitista” kritikatu duelarik:

Creo que el feminismo se tiene que acercar al sindicalismo (...). Se tiene que acercar a las trabajadoras, se tiene que dejar el discurso de elite...de patriarcado, y todas estas cosas que muchas mujeres de residencias no entienden, no se identifican y no se acercan. Entonces al feminismo yo si le he pedido: baja un poquito, acercate a las empresas, habla sencillo y ya verás como somos todas feministas. Bilboko liberatua 2.

Beste alde batetik, grebalariek bat egiten dute zaharren egoitzetako senideek sortutako elkarteak prozesuan zehar izandako garrantzian, Babestu elkarteak, alegia. Esan beharra dago, gainera, elkarte hau greba honetan zehar sortu dela espreski:

Babestu nació de la mano de este conflicto. No ha estado ligado nunca a ningún sindicato. Empezaron a apoyarnos e iban a nuestro compás, nos acompañaban. Nosotros reivindicando un convenio y sacando a la luz el cómo se gestionan las residencias, y Babestu la labor que tiene es la de conseguir lo que nosotros no tenemos en nuestras manos, los ratios. (...) El familiar es el que paga y creo que es el que tiene el poder de exigir a las empresas, yo creo que ahí Babestu tiene un papel importante. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Egun ere, badirudi Babestu Erresidentzietako grebalarien aliatu garrantzitsu izaten jarraitzen duela, eta jarraituko duela, batez ere ratioen aldaketarako borrokan:

Nos han acompañado en todo el conflicto, Babestu sería a destacar porque creo que han estado en todo. Y aún de hoy mantenemos colaboración para seguir trabajando. Desde luego en los ratios vamos a ir siempre de la mano. Bilboko liberatua 2.

D. Emaitzak

D.1. Edukitzea

Erresidentzietako grebalariek erdietsi dituzten baldintza materialei dagokienez, honakoak izan dira lorpen nagusiak: 1592 orduko lanaldia, 140 euro baino gehiagoko soldata igoerak, gaixotasun edota istripuen aurrean soldataren 100% jasotzea, formakuntzarako orduak, 20 minutuko atsedernaldia, edota igandeetako zein gauetako txanden plusen igoera, besteak beste.

Hobekuntza hauen bidez, Bizkaiko Erresidentzietarako grebalariek arlo publikoan lanean darabiltzen lankideen baldintzekin parekatzeko beste pausu bat eman da, nahiz eta oraindik desorekak nabarmenak diren. Hala ere, jardunaldiari dagokionez, behintzat, parekidetasuna lortu egin dute:

Es histórico conseguir las 1592 horas en un sector privado. Siempre nos habían dicho que en nuestro mejores sueños. Se lo están quitando al sector público...y de repente lo conseguimos en el sector privado y de mujeres. Las 1592 siempre han sido las del sector público. En unos años vamos a trabajar 1592... ¡Menos! Porque ahí va a estar metida la formación, y 20 minutos de descanso para todas. Así que al final, es calidad, es histórico. Bilboko liberatua 2.

Dena den, soldatei eta ratioei dagokienez arlo publikoan baldintza nabarmenki hobekak dituztela aipatu du liberatu sindikalak:

En IFAS cerca del doble (el sueldo), un 40% por lo menos. Hemos conseguido un salto importante, pero todavía... (...) El ratio de ellas también es del doble, pero el doble porque lo hemos mirado. En residencias nuestras a la mañana puede haber 8, en le IFAS hay 16. Bilboko liberatua 2.

Hala ere, baldintza hauek hobetzeko borrokan jarraituko dutela azpimarratu egin dute.

D.2. Jakitea eta egiten jakitea

Zenbait elkarrizketaturen iritziz, gatazka luze honek, tankera honetako borroka batek suposatzen duenaz kontziente izatea eragin die, alderdi on eta txarretaz, alegia. Modu berean, garaipen honen bitartez antolakuntzaren bidez lor daitekeenaz kontzienteago dira ere bai:

A mí esto me ha hecho tomar más conciencia de que con una buena organización se puede conseguir; y también de los pros y los contras. La verdad es que yo personalmente no pensaba que tendríamos...que se hubiese permitido tantos días de huelga en este sector. (...) El aumento de servicios mínimos ha sido un mazazo. A mí me ha hecho ser consciente de que claro, hay que pelearlo pero que cuidado. Con los servicios mínimos que han servido para invisibilizar la huelga. Fueron super abusivos. Por eso a mí me ha hecho tomar conciencia de que ilusa de mí, pensaba que iba a ser más fácil. (...) La lucha está ahí y se consiguen cosas con una buena organización pero que cuesta, a la vista está con lo que nos ha costado. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Zentzu honetan, zerbitzu minimoez gain, greban zehar izandako trabak mahai gainean jarri dituzte elkarrizketatuek, nahiz eta antolakuntza eta borrokaren bidez oztopoak gainditzen direla aipatu.

Modu zehatzagoan, kontzientziazio feministaz galdetzerakoan, grebalari gehienek feminismoarekiko eboluzio bat egon dela diote. Elkarrizketatu gazteenak, esaterako, honela bizi izan du prozesua:

Ahora he cogido más conciencia (...). No me había parado a pensar, pero ahora me siento feminista a tope. La desigualdad que hay en muchos ámbitos no lo veo normal. Esta lucha también, se ha visto que ha sido, como hemos sido mujeres ha sido más larga, no nos hacían caso y eso también te hace más... Decir: soy feminista y voy a luchar por los derecho de las mujeres, de nosotras, que somos igual que ellos. Bilboko afiliatua 1.

Liberatu sindikalak, bere aldetik, honela bizi izan du kontzientzia feministaren hedatzea. Feminismoaren hedatze hau, gainera, grebalarietara soilik mugatu ez dela aipatu egin du:

Las que ya lo éramos...yo he vivido una ilusión. De que soy feminista de toda la vida, pero he sentido que mi sector se volvía más feminista que nunca. Y a mí me ha hecho muchísima ilusión que mi sector, e incluso ahora mi sindicato, se defina como feminista. (...)De hecho, ELA se definía como un sindicato de clase y abertzale, y ahora se define como un sindicato de clase, abertzale y feminista...desde la huelga de residencias. Bilboko liberatua 2.

D.3. Nahi izatea

Norbere buruaren pertzepzioan grebaren ondorioz aldaketarik ego note den galdetzerakoan, elkarrizketatuen artean nagusitu den erantzuna honakoa izan da: borrokarako motibazio eta indarra handitu egin direla. Ondorengoak, adibidez, gazteagotan bizitako beste gatazka batekin alderatuta, greba honek eragin diona azaldu du:

Yo para mí si ha sido, para mi mentalidad para seguir luchando, porque yo viví la huelga de 2003, pero yo acababa de aterrizar en Aspaldiko, llevaba un mes fina en Aspaldiko. Y yo la viví esa huelga pues de risas, de...no sabía. (...) Claro, y también porque tenía 22 años, y yo vivía con mis padres, y venga, ¿pierdo tanto dinero? bah, me daba igual...bah, yo lo vivía de otra manera (...). Esta huelga si la he sufrido y digo, pues al final merece la pena. Ezkerraldeako ordezkaria 3.

Elkarrizketatu gazteenak, modu honetan bizi du bere autopertzepzioa greba egin eta gero:

Si, yo sí, yo me noto más fuerte, si...a mí me ha dado fuerza y es de ver que las cosas se consiguen, cuesta pero se consiguen (...). Además nunca había hecho huelga, nunca nada, o sea era todo nuevo para mí...tenía miedo, no sabía, le preguntaba a mi madre: “¿Ama, qué te parece?” “Pues haz lo que tu quieras, tu eres mayor, ¿no?” Me decía... y pues venga, al final me siento más fuerte. Bilboko afiliatua 1.

Beste honek, aldiz, jendartearen babesaren garrantzia azpimarratu du autopertzepzioaren eragile gisa:

También más valoradas por la sociedad, el que estuvieras en la calle y se te acercara gente que no te conocía y te dijera: ¡venga chicas, ánimo, que lo tenéis ganado! Ezkerraldeako ordezkaria 4.

Beste alde batetik, borrokarako beldur gutxiago izana ere sarri aipatutako gaia izan da elkarrizketatuen artean, ildo berean antolaketa eta gatazkarako indarrak hazi egin direlarik grebalarien artean:

Yo creo que han despertado más bien. Les ha hecho no cambiar su mentalidad, sino despertar, quitar ese miedo... “Esto es así, tengo que luchar por esto porque yo lo pienso así, y tengo que hacerlo”. Eskumaldeako ordezkaria 1.

Y en el día a día en tu centro eh. Yo creo que hay mucha gente que antes tenía miedo en sus centros a decir: ¡oye esto no es justo! Y con esta huelga...ha habido centros que no han hecho nunca huelga, o hacían muy poquitos y ahora han tenido una repercusión mas grande, han tenido un seguimiento mayor, han salido más trabajadoras a la huelga, se han empoderado, se han hecho fuertes...y en tu día a día porque luego la batalla está en tu día a día en tu centro, y creo que en ese sentido ha servido de mucho eh, estoy convencida. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Maila kolektiboan ere, beldurrak galtzeak eta borroka konpartitzeak modu esanguratsuan eragin du talde sena indartzeko garaian. Elkarrizketatuek, prozesu honen ondorioz grebalarien arteko loturak eta euren arteko babesa asko indartu egin da, norbere boterea besteekin bat egiterakoan biderkatu egin delarik. Honela diote elkarrizketatuek:

Se ha formado y creado un vínculo... ¡Puff! Que se preparen para el 2020... porque es que es impresionante, claro yo hablo de Aspaldiko, y me imagino que será general. La gente que ha estado en la calle, ese vínculo es importantísimo y encima es muy fuerte. Ezkerraldeako ordezkaria 1.

Nos hemos conocido todas con las reuniones que hacíamos en el Bilbao, que era todo Bizkaia, todas las delegadas, ya nos conocimos, mira esta la otra...y luego en Ezkerraldea que nosotras somos todas de Ezkerraldea, mas o menos éramos una piña, pues ahora somos un piñón. Ezkerraldeako ordezkaria 3.

Lo que a mi me ha quedado claro por ejemplo es que antes eramos aisladas, ¿no? lo que pasaba en una residencia pasaba ahí, y ahora que me he dado cuenta es que lo que pasa en una residencia: “he tenido este problema”. “¡Si necesitas algo ahí estamos! Ven, nos lo dices que ahí vamos!” O sea esa sororidad, ¿no? Esa piña, ¿no? Que hemos formado, que ya no nos sentimos es decir: jo, si me pasa algo pues ya tengo otras residencias no? Que van a venir a prestarme apoyo, yo eso si lo veo, si. Ezkerraldeako ordezkaria 2.

Yo se que ahora mismo tenemos un problema en mi centro, me tengo que poner delante de la puerta, no tengo más que poner un mensaje en un grupo, y al día siguiente tengo un montón de gente en la puerta. Eskumaldeako ordezkaria 2.

Eso ya ha pasado en mi centro. En julio con los despidos vino un montón de gente, antes de nosotras a apoyarnos. Es algo, ¡que te da un subidon! La cantidad de gente que había fue alucinante, aquello les hizo pupa. La verdad es que eso es algo que nos

ha unido a todas, que dices jo, puedo contar con gente que no conocía de nada. Pues imagínate las dos despedidas lloraban de emoción. El apoyo ese te da una fuerza increíble. (...) Si para mí eso es muy positivo, que nos hemos conocido más a fondo, y bueno, ahí hay una amistad aunque no nos vemos todos los días, pero... Eskumaldeako ordezkaria 1.

Ikus daitekenez, elkarrizketatuen testigantzek bat egiten dute talde sena indartu egin dela esaten, eta horrek borrokarako suposatzen duen babes eta bultzadan aurretik zegoen egoerarekin alderatuta, zeinetan lan zentru zein pertsonak modu isolatuagoan mugitzen ziren.

D.4. Eragiteko gaitasuna

Indibidualki, elkarrizketatuek diote grebalari askok beldurrak galdu dituztela, eta euren aldarrikapenak plazaratzeko gaitasuna areagotu egin dela:

Creo que sí que ha habido es gente que antes sí tenía miedo a reivindicar sus derechos, a tocar la puerta del jefe y a decir... eh! Eskumaldeako ordezkaria 2.

Elkarrizketatuek ere eragiteko gaitasunaren indartzeak kolektiboaren mugak gainditu, eta beste sektore feminizatu batzuetuara ere iritsi dela diote:

No sabes la de empresas pequeñas que se están afiliando y dicen, ¡a la huelga! Empresas de mujeres. (...) En el día a día vas viendo que se acerca gente, y además dicen: “pues si vosotras habéis podido...” dices: ¡ostia es que el impacto ha sido mucho mas grande de lo que pensamos, eh! (...) Hemos generado unas ganas en cantidad de mujeres de decir: ¡ya está bien la broma! Bilboko liberatua 2.

Behin greba amaituta, gainera, zenbait eragilerekin sareak sortu edota indartu egin dira, horrek suposatzen duen indar metatzearekin:

Nos han invitado por toda España a hablar. Yo ya he estado dos veces en Barcelona invitada por la COS, y por mucha gente, he ido dos veces ya a hablar del conflicto ¿eh? (...) Con las Kellys también hemos estado (...) y vinieron a la acampada. Y luego (...) han estado compañeras en Madrid, en Segovia, en Soria, en Canarias, en Barcelona...hemos estado en un montón de sitios para hablar del conflicto. En el País Vasco donde participamos siempre es en...ahí sí que en medios feministas. Pues revistas feministas, radios feministas independientes....el movimiento feminista ahora sí es el único que aquí nos está llamando para colaborar (...). Luego también nos han

llamado de institutos, ha habido dos institutos donde se ha ido a dar charlas a chavales de 16 y 17 años sobre la huelga. Bilboko liberatua 2.

Indar hau, gainera, zabaltzen ari da egunez egun, eta ekitaldi eta deialdi ezberdinei erantzuna emateko ordezkari sindikalen artean 14 laguneko taldea sortu dute, zeinak errotazioaren bidez parte hartzea euren artean banatzen duten.

3. ONDORIOAK

Bizkaiko Erresidentzietako grebalarien bizipenak eta prozesu ezberdinak bildu ditugu, eta ahalduntze feminista prozesuak aztertzeaz gain, maila teorikoan landuriko bestelako gaiak jorratu ahal izan ditugu era berean, hala nola sexuaren araberako lanaren banaketa, lan merkatuaren egoera emakumeekiko edota sindikalgintza.

Ahalduntzeari dagokion ikerketa atalari buruz, lehenik eta behin esan beharra dago ahalduntze prozesu bakoitza era batekoa eta subjektiboa dela eta ondorioz, haren analisi eta sistematizazioa ere moldatu beharra dagoela aztergai den kasu bakoitzera. Horregatik, nahiz eta analisi enpirikoak oinarri teoriko eta metodologiko jakin bat izan, adierazleak moldatu egin dira greba testuinguru duen ahalduntze prozesu honetarako. Hau kontuan izanda, hainbat ondorio azaleratu egin dira egindako ikerketa kualitatibo honen bitartez:

Abiapuntuan, nahiz eta grebalari bakoitzak maila pertsonalean egoera ezberdina izan baldintza materialei, giza baliabideei edota baliabide sozio politikoei dagokienez, denek oinarri amankomunak elkarbanatu egin dituzte: sektore feminizatua osatzen dute, eta euren lana ez da baloratua, honela bizi dituzten lan baldintzak kaxkarrak dira. Hasiera batean, lan zentru batzuk sindikalizatuagoak zeuden, afiliazio edota ordezkari mailari dagokionez, eta beste batzuk gutxiago. Dena den, grebara atera diren behargin guztiak sindikalizatu egin dira azken batean.

Greban zehar baldintza materialei dagokienez, elkarrizketatuek bat egiten dute ELA sindikatuak duen erresistentzia kuxaren garrantzia azpimarratzerakoan. Izan ere, 378 greba egun diru sarrerarik gabe irautea ezinezkotzat jo dute grebalariek. Honetaz gain, sindikatuak greban zehar eskainitako beste laguntza materialak ere aipatu dituzte elkarrizketatuek: lokalak, material ezberdina, eta abar.

Giza baliabideei dagokienez, alderdi emozionalari eusteko kideen arteko sostengua ezinbestekoa izan dela ondorioztatu dezakegu testigantzetatik. Izan ere, momentu onak eta txarrak bizi izan dituzte hain denbora luzean, eta grebalarien arteko babes eta euskarria oinarri-oinarrizkoa izan da. Honekin batera, eta sektore feminizatua izanik, greban zehar zaintza lanen kudeaketa ere zentralidadea izan duen gaia izan da elkarrizketetan. Modu honetan, grebalariek zailtasunak gainditze aldera sarri seme-

alabekin mobilizazioetara joan behar izana plazaratu dute, eta familia edota inguruko sare sozialen laguntza ezinbestekoa izan dela ere azpimarratu egin dute.

Baliabide soziopolitikoei dagokienez, grebalarien arteko sostenguaz gain, kanpoko eragileen elkartasunaren garrantzia ere azpimarratu da elkarrizketetan, eta zentzu honetan gatazkaren baitan sortutako Babestu elkarte nabarmendu egin da, egoitzetako erabiltzaileen familien elkarte, alegia. Bizkaiko Erresidentzietako langileek, gainera, elkarlanean jarraitzen dute egun ere Babesturekin, batez ere ratioen kontuari dagokionez indarrak metatzen dituztelarik.

Kanpo euskarri eta babesei dagokionez, mugimendu feministaren inguruko parentesi bat ireki nahi nuke hemen. Gai honekiko elkarrizketatuek amankomunean izan duten sentimendua honakoa izan da: mugimendu feminista berandu iritsi dela, eta gatazkaren amaieran besterik ez dutela enpatia izan borrokarekiko. Zentzu honetan, mugimendu feministaren babesa lortzeko grebalarien partetik lanketa bat egon dela aipatu egin dute testiguen. Elkarrizketatu batek, honen inguruan hausnartuz, mugimendu feminista langileengana gehiago hurbildu egin behar dela plazaratu zuen, sarri “eliteko” diskurtso bat maneiatuz ez delarik zenbait kolektiborengana iristen.

Beste alde batetik, negoziazio kolektiboan zehar bizitako esperientziak ere plazaratu dituzte elkarrizketatuek. Batzuek modu zuzeneagoan hartu dute parte, negoziaketa mahaietan izan direlarik patronalarekin aurrez aurre. Oro har, esperientzia txar gisa definitu dute parte hartze zuzen hau, grebalariekiko mespretsua eta matxismoa nagusi izan delarik bilera hauetan. Hala ere, patronalaren erdeinu honek aurrera jarraitzeko indar bikoitza eman diela aipatu egin dute elkarrizketatu guztiek. Negoziaketa mahaietan ahalik eta grebalari gehien presentzia bermatzeko, ordezkarien artean errotazio sistema bat jarri dute martxan, parte hartzea bultzatuz modu honetan. Dena den, grebalari guztiek ezin izan dute kontaktu zuzen hori izan patronalarekin, baina hala ere negoziaketaren parte sentitu direla plazaratu egin dute. Izan ere, bilera edota gertakari oro baino lehen zein ondoren, asanbladak egin dituzte sindikatuan, pertsona oro informatua egon zedin, eta langileen iritziak jasotzeko asmoz.

Azkenik, 378 egun ostean, Bizkaiko Erresidentzietako Langileek akordioa sinatu egin zuten, eta greba amaitzea erabaki egin zuten asanblada bidez.

Elkarrizketatuak grebaren emaitzen inguruan mintzatu dira, eta ikerketa enpirikoaren bidez lau arlotan bildu egin dira, ahalduntze prozesuen lau aspektuak, alegia: edukitzea, jakitea eta egiten jakitea, nahi izatea eta eragiteko gaitasuna.

Edukitzea-ri dagokionez, hobekuntza agerikoa da, maila indibidualean zein kolektiboan: euren lan baldintzak hobetu dituzte, jardunaldiaren aspektua, esaterako, arlo publikoaren parekoa izatera iritsi egin delarik.

Jakitea eta egiten jakitea aspektuari dagokionez, ondorioztatu dezakegu oro har borrokarekiko eta sindikalgintzarekiko kontzientziazio maila igo egin dela, hauexek izan direlarik esan direnak: beldurrak galdu egin dira, eta grebak suposatzen duenaz – gauza onak eta txarrak- gehigo kontzientziatu egin da jendea. Hurrengo gatazka bat emango balitz, beraz, langileek esperientzia gehiago eta beldur gutxiago izango lukete zentzu honetan. Honetaz gain, greban zehar afiliazioak gora egin du, eta grebalari kopuruak goranzko joera izan du gatazka aurrera joan ahala. Honela, greba aurretik sindikalgintzarekiko loturarik ez zuen jende asko batu egin da, eta erakunde sindikal jakin batek eskaini ditzakeen tresnen eta horien erabilpenen jakitun bilakatu da, aurretik baino neurri handiago batean.

Beste alde batetik, kontzientziazio feministari dagokionez, hasiera batean bere burua feministatzat hartzen ez zuen grebalari askok, gatazkaren amaieran feminismoarekiko identifikatuak sentitzen dira, elkarrizketatuek plazaratu dutenaren arabera. Izan ere, patronalaren ahotan entzundako irain sexistek, edota grebaren luzapen handia, beste zenbait greba maskulinizaturekin alderatuta, grebalari asko euren emakumetasunagatiko pairatutako zapalkuntzaz kontzienteago izatea eragin du.

Hala ere, garrantzitsua da hemen aipatzea, elkarrizketatuek ere hala azpimarratu baitute, gatazkak azken batean kutxu feminista hartu duen arren, grebalariak ez zirela emakumeak zirelako edota kausa feministagatik kalera atera. Aitzitik, euren lan eta bizi baldintzak hobetzeko xedearekin abiatu dute borroka hau. Modu honetan, Bizkaiko Erresidentzietako grebalariek interes praktiko batzuk mugituta abiatu dute gatazka, denborarekin interes praktiko horiek estrategikoei ere bidea ireki diotelarik. Azken interes hauek, estrategikoak, kontzientziazio feministari dagozkion interesak dira, eta grebak aurrera egin ahala protagonismoa hartuz joan dira, nahiz eta interes praktikoak greba guztian zehar borrokaren funtsa izan diren.

Nahi izatea aspektua ere landu da elkarrizketetan, greba ondorengo protagonisten motibazioa eta gogoia, alegia. Elkarrizketatu guzti guztiek, nahiz eta greba luzea eta neketsua izan den, hurrengo pausoak emateko motibazioa badute. Testigantzen arabera, gatazkan lortutakoa emozionalki gorantzko bultzada bat izan da, eta gehienek behar izanez gero prozesua errepikatuko luketeela adierazi egin dute.

Gogo eta motibazio honen gako nagusietako bat, talde sena indartu izana izan da. Izan ere, lankide eta borroka-kide arteko harremanak ezinbestekoak izan dira emozionalki grebari eusteko, eta horren ondorioz talde sena izugarri indartu da, grebalarien iritziz. Harreman berriak sortu egin dira, eta aurretik bazirenak indartu. Honela, gainera, aldarrikapen indibidualek kolektibizatzeko joera hartu dute, talde babesia eta laguntza areagotu egin direlarik.

Greba ondorengo *eragiteko gaitasuna*-ri dagokionez honakoa ondoriozta dezakegu: langileek orokorrean beldurrak galdu dituztenez gero, eta taldearen babesia eta indarra gehiago sentitzen dituztenez, euren eragiteko gaitasuna nabarmenki hazi egin da. Elkarrizketatuek, zentzu honetan, lan zentruen adibidea jartzen dute, arazo bat izanez gero lantoki batean, gainontzeko zentruetako grebalari taldea bertaratuko dela esaten baitute, greba aurretik gertatzen ez zen bezala. Zentzu honetan zehar, beraz, esan genezake pertsonen eragiteko gaitasuna kolektiboaren bidez bikoiztu egin dela.

Beste alde batetik, garrantzitsua da ere aipatzea gatazka honek nola eragin izan duen beste hainbat borroka eta kolektibotan. Elkarrizketatuek dioten moduan, eredu honek indarra eman die beste zenbait langileei euren gatazka propioak abiatzeko. Honetaz gain, erakunde sindikalaren baitan eragindako aldaketa ere esanguratsua da zentzu honetan. Izan ere, liberatua dagoen elkarrizketatuak dioten moduan, greba aurretik ELA sindikatua ez zen feminista moduan definitzen. Aitzitik, gatazka ondoren bai.

Elkarrizketen analisiarekin jarraituz, ikerketa adierazleak interpretatzeaz haratago doala ikusi ahal izan dugu, gainera. Nahiz eta foku nagusia Bizkaiko Erresidentzien Borrokan zehar emandako greban eta bertan sortutako ahalduntze feminista prozesuan jarri dugun, maila teorikoan landutako zenbait gairekin lotura zuzena aurkitu dugu.

Ahalduntze prozesuek, aztertu dugun moduan, pertsonen bizitza indibidualak zein kolektiboak zeharkatzen dituzte. Ondorioz, eta aztergai dugun kasuari dagokionez, ezin ditugu lan merkatuak zein sindikalgintzak protagonistengan sortu dituen eraginak

analisitik kanpo utzi, faktore horiek greban parte hartu duten pertsonak eta kolektiboak oro har zeharkatu baitituzte bete betean.

Ildo guztian zehar presente egon den gaia (batzuetan esplizituki besteetan inplizituki) sexuaren araberako lanaren banaketa izan da, eta honekin batera “Breadwinner” eredu. Lan honen zati teorikoagoan ikusi dugu industrializazio garaian eredu hau indartu egin zela, emakumeen rol etxekoia areagotu egin zelarik era nabarmenean. Bada, elkarrizketetatik ondorioztatu ahal izan dugun moduan, eredu honek bizirik dirau egun ere, bereziki agerian geratu delarik patronalaren aldetik grebalariek jasotako diskurtsoa, “*segundo sueldo*” eta honelako adierazpideak erabili dituztelarik.

Argi geratu da Bizkaiko Erresidentzien adibidearen bitartez, sektore feminizatuei sozialki ematen zaien balorazioa, balioespen honek beharginen lan eta bizi baldintzetan era nabarmenean eragiten duelarik. Honen adibide dira sektorean jasotzen diren soldatak. Zentzu honetan, urteetako borrokaren bidez hobekuntzak lortu diren arren, besteak beste Estatu mailako hitzarmenetik lurralde mailakora salto egin delarik, bizitzarako ezinbestekoa den lan honen soldatak oraindik ere kaxkarrak izaten jarraitzen dute. Honi, gainera, EAEn azken urteetan geroz eta hedatua dagoen azpikontratazioaren ereduaren eraginak gehitu behar dizkiogu. Izan ere, kontzertatuta dauden egoitzetako langileek, arlo publikoan dihardutenek baino %40 inguru gutxiagoko soldata jasotzen dute.

Sindikalgintzari dagokionez ere, maila teorikoan aztertutakoa maila enpirikoan isladaturik geratu egin da hein handi batean. Izan ere, testigantzetatik atera ahal izan dugu egoera prekarioenean dauden pertsonen zailtasun gehigarria greba egiteko, besteak beste aldi baterako kontratuak dituzten langileak, edota gazteak. Hauek, gainera, nahiz eta mugagabeki kontratatuak egon, sarri ez dira identifikatuak sentitzen sindikalgintzaren sinbologia tradizionalarekin, eta erakundeekiko urruntasuna ohikoa izan ohi da, nahiz eta salbuespenak badiren. Dena den, borroka honen bidez ikusi da nola ereduaren bitartez, sarri iruditegi sinbolikoarekin identifikatuta sentitzen ez diren kolektiboek antolakuntza eta borrokarako saltoa egin duten. Gatazka hau feminizatu izanik, eta garaipena lortu delarik, beste zenbait emakume langile kolektibo mobilizatzeraren eraman ditu borroka honek. Elkarrizketatuek zioten moduan, Bizkaiko Erresidentzien gatazkak lantoki askotan emakumeak altxatzea eta hauteskunde sindikalak, mobilizazioak edota grebak aurrera eramatea ekarri du, greba aurretik ohiko

zena baino neurri nabarmenki handiagoan. Altxamendu hauek, gainera, gehienetan kutxu feminista izaten dute, aurretik hain maiz gertatzen ez zen bezala. Horren adibide dugu Gipuzkoako Administrazioako Garbitzaileek egindako mosaiko feminista, edota berrikiago, Gipuzkoako Erresidentzietako Langileek hasi berri dituzten mobilizazioetan oihukatzen ari diren “gora emakumeon borroka!”. Honek, Bizkaiko Erresidentzietako Borrokak izandako oihartzuna eta eragina agerian uzten du, lan munduari, sindikalgintzari eta feminismoari dagokionez.

4. BIBLIOGRAFIA

- Alcañiz, Mercedes eta Monteiro, Rosa (2016ko abendua). She-Austerity. Precariedad y desigualdad laboral de las mujeres en el sur de Europa. *Convergencia, Revista de Ciencias Sociales*, 72, 39-68.
- Amurrio, Mila eta Larrinaga, Ane, (2017). IV. Movimientos sociales, participación y dominación. In Jone Martinez Palacios (koord.) *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias* (145-172). Bartzelona: Icaria.
- Arbaiza, Mercedes (2011). Economía en tiempos de posmetafísica: una perspectiva feminista. In Pilar Perez Fuentes (Ed.) *Subjetividad, cultura material y género* (239-270). Bartzelona: Icaria.
- Arbaiza, Mercedes (2014). Obreras, amas de casa, mujeres liberadas. Trabajo, género e identidad obrera en España. In Mary Nash (Ed.) *Masculinidades y Feminidades. Arquetipo y prácticas de género* (129-158). Madril: Alianza.
- Arrillaga, Isabel; Olaizola, Begoña eta Rezola, Leire (2017). *Zifrak 2016. Emakumeak eta gizonak Euskadin*. Emakunde.
- Charlier, Sophie eta Caubergs, Lisette (Koord.), Género e Indicadores ikerketa taldea (2007). *El proceso de empoderamiento de las mujeres. Guía metodológica*. Brusela: Comisión de Mujeres y Desarrollo.
- De Miguel, Ana (2005). La articulación del feminismo y el socialismo. El conflicto clase género. In Amorós, Celia eta De Miguel, Ana (Ed.), *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización* (295-332). 1. Liburukia. Madril: Minerva.
- Dufour-Poirier, Melanie (2017ko abendua). La crisis del sindicalismo. In *Globalizazioa, lana eta botere sindikala. Resumen de las intervenciones de un seminario internacional*. Gai Monografiak 54. Manu Robles Arangiz Institutua.

- ELAko Batzorde Eragilea (2016ko apirilak 4), *Estatalizazioak kalte larria eragiten die lan-baldintzei. Negoziazio kolektiborik gabe ez dago dago autogobernurik*. ELA Euskal Sindikatua.
- Fundación 1º de Mayo (2012ko otsaila). *Las reformas laborales en España y su repercusión en materia de contratación y empleo. 52 reformas desde la aprobación del Estatuto de los Trabajadores en 1980*. Fundación 1º de Mayo.
- Gabinete de Estudios Confederal - Gabinete Jurídico Confederal (2010eko uztaila-abuztua). *La reforma laboral. Real Decreto-Ley 10/2010*. Boletín informativo nº129. Secretariado Permanente - Comité Federal de CGT.
- Hernández, José Manuel (2004ko iraila). *Crisis del derecho del trabajo y la globalización*. Dokumentuak 6. Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Kortabarria, German (2015). *Gauzak horrela (ere) izan ziren. ELA 1976-2006*. Iruñea: Pamiela.
- LAB Sindikatua (2012ko otsailak 20), *2012ko Lan Erreformari buruzko txostena*. Hemendik eskuratua: <http://www.lab.eus/eu/greba-orokorra/201-greba-orokorra/553-2012ko-lan-erreformari-buruzko-txostena-?format=pdf>
- Lagarde y de los Rios, Marcela (2012). *El feminismo en mi vida. Hitos, claves y topías*. Mexico DF: Instituto de las mujeres del Distrito Federal.
- León, Magdalena (1997). *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogota: TM Editores, U.N. Facultad de Ciencias Humanas.
- Murguialday, Clara (2013). *Reflexiones feministas sobre el empoderamiento de las mujeres*. Colección Cooperació. Bartzelona: Cooperació.
- Piris, Silvia (2015). *¿Emancipación sin feminismo? Transitar de la marginalidad a la centralidad del feminismo en las organizaciones mixtas*. Biblioteca Básica de Formación 7, Manu Robles-Arangiz Institutua.
- Precarias a la deriva (2004). *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina*. Utiles 1. Madril: Traficantes de sueños.

Sales, Tomeu (2016ko udaberria). Contra la precariedad, con la precariedad; cuidados y feminismo. *Oxímora Revista Internacional de Ética y Política*, 8, 53-62. RCUB Revistes Científiques de la Universitat de Barcelona.

Scott, Joan (1993). La mujer trabajadora en el s.XIX. In Georges Duby eta Michelle Perrot (Ed.). *Historia de las mujeres. El siglo XIX* (427-261). Madril: Taurus.

Torns, Teresa eta Recio, Carolina (2017). *Emakumeak eta sindikalismoa: aurrerapausoak eta erronkak lan eta gizarte arloko aldaketan aurrean*. Dokumentuak 36, Manu Robles-Arangiz Institutua.

Txostenak

Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak (1997), Leioa.

Euskadiko II Topaketa Feministak (1984), Leioa.

Euskadiko III Ihardunaldi Feminista (1994), Leioa.

5. ERANSKINAK

I. Eranskina

Hainbat adituk ahalduntze prozesuen azterketa gauzatu egin dute esperientzia ezberdinetan oinarrituta. Jo Rowlands (1997) feministak, esaterako, Honduraseko emakumeen ahalduntze prozesua abiapuntu harturik, ahalduntzearen inguruko teoriak plazaratu zituen. Egile honen arabera, ahalduntzea hiru dimentsio ikutzen dituen prozesua da, maila pertsonala, gertuko harremanen maila eta maila kolektiboa, alegia. Modu honetan garatuko lirateke dimentsiook:

- Maila pertsonala: Autoestimua indartzea, norberarenganako konfiantza, identitatea garatzea, edota norbere bizitzan hautuak egiteko gaitasuna izatea.
- Gertuko harremanak: Inguruko harremanei dagokienez, negoziatzeko eta erabakietan eragina izateko ahalmena garatzea.
- Maila kolektiboa: Beste batzuekin elkarlanean aritzea indibidualki lortuko litzatekeena baino inpalku handiagoa sortzeko inguruan. Dimentsio kolektiboa formala edo informala izan daiteke, hau da, instituzioekin lotua edo ez.

II. Eranskina

Boterea kontzeptuaren inguruan nahasmena izan da maiz mugimendu feministaren baitan zein jendartean, sarri konnotazio txarrak egotzi izan zaizkiolarik. Izan ere, zientzia sozialetan gehien aztertu den boterea besteen gainetik erabiltzen dena edo dominazioa dakarren boterea da. Botere mota hau, “besteen gaineko boterea” – gazteleraz “poder sobre”- izendatua da, eta hiru maila izango lituzke (Clara Murguialday, 2013):

- Besteen gaineko ageriko boterea: modu agerikoan hartzen diren erabakietan oinarritzen den dominazio boterea. Adibidez, Estatu jakin baten egon daitezken ageriko arau eta legeak, edota horiek betearazteko mekanismoak.
- Besteen gaineko botere ezkutua: jendarteko pertsona eta kolektiboen behar eta nahiak agendan kokatzeko edo kanpo uzteko ahalmenean datza botere hau, betiere inplizitua izanik. Honen adibide dugu sexuaren araberako lanaren banaketa, eta jendartearen maila “pribatua” edo etxetiarra erregulazio ekonomiko eta politikotik at geratzeko joera.

- Besteen gaineko botere ikusezina: persona eta kolektiboen interesak ezeztatzeko ahalmena da, horiek kalteaz jabetzen ez direlarik. Zenbait feministaren arabera botere mota hau arriskutsuena da. Izan ere, ezberdintasun sozialak modu naturalean onartzen direnean erabiltzen da botere hau, genero rolekin maiz gertatzen den moduan.

Latinoamerikatik datorkigun feminista korrante batek, aitzitik, boterea bakarra ez dela aldarrikatzen du, hau da, ez dela soilik dominazio eta sumisio harremanetan ematen. Honetaz gain, feminista berberak boterea ulertzeko zentzu negatibo honi buelta eman, eta emakumeok boterea hartzeko dugun beharraz hausnartu dute, ahalduntze feministaz, hain zuzen ere.

III. Eranskina

4. Taula "Botere mailak": terminologia euskaratua

Poder sobre	Besteen gaineko boterea
Poder de	Egiteko boterea
Poder con	Boterea besteekin
Poder interior	Barne boterea

Iturria: Norberak egina

IV. Eranskina

5. Taula: Elkarrizketen kronologia eta hizlarien sailkapena

Eguna	Eskualdea	Elkarrizketatuak	Iraupena
2018/05/23	Bilbo	Liberatua Afiliatua (gazte profila)	55:33
2018/04/18	Eskumaldea	Ordezkari sindikala 1 Ordezkari sindikala 2	1:01:14
2018/04/11	Ezkerraldea	Ordezkari sindikala 1 Ordezkari sindikala 2 Ordezkari sindikala 3 Ordezkari sindikala 4	1:01:47

Iturria: Norberak egina

V. Eranskina

Elkarrizketen gidoia

Sarrera

- Nor zara?
- Zein harreman duzu sindikalgintzarekin?
- Nolakoa da zure lanegun bat?

Abiapuntua

- Zeintzuk dira zure lan baldintzak?
- Zein da zure enpresako langileen profila (sexua, adina, jatorria...)?
- Nola eta zergatik hasi zen gatazka?
- Nola eta zergatik erabaki zen greba egitea?
- Hasieratik parte hartu zenuen greban? Zergatik?

Greba

- Nola bizi duzu 378 egun iraun dituen greba?
- Zerk lagundu dizu momentu txarretan?
- Erresistentzia kutzak nola lagundu dizu?
- Nola bizi izan du gatazka zure inguruko jendeak (senideak, lagunak...)?
- Negoziazio kolektiboan parte hartu duzu? Zein modutan?
- Uste duzu grebak izan duen luzapenak emakumez osaturiko sektorea izatearekin lotura duela?
- Gatazka hau feminista izan dela esango zenuke? Zergatik?
- Zein babes izan dituzue greban zehar?
- Mugimendu feministaren babesa sentitu duzu? Zergatik?

Emaitzak

- Zer lortu duzue?
- Maila pertsonalean, autopertzepzioari dagokionez aldaketarik nabaritu duzu gatazkaren ondorioz? Zein modutan?
- Sindikalgintzarekiko zure ikuspegia aldatu egin da? Zein modutan?
- Gatazkaren ondorioz, feminismoarekiko kontzientziazio mailan aldaketarik nabaritu duzu zeure buruarengan edota zure kideengan? Zein modutan?
- Lankideekiko harremana aldatu egin da grebaren ondorioz?
- Motibatua sentitzen zara aldarrikapenak egiten jarraitzeko?
- Beste eragileekin eraikitako sareak mantentzen dituzue, edota gerora begira mantentzeko asmoa duzue? Zein modutan?
- Zeintzuk dira hurrengo pausoak?